

**BARRUAN,
ZURE HERRIKO
ALDIZKARIA**



IRITZIA: TOKIAN TOKIKO HEDABIDEAK ETORKIZUNARI BEGIRA /9

Goienaria

EGUBAKOITZA • 2003ko azaroaren 28a • IV. urtea • 133



ARRASATE

Pedro de Biteriren gaineko liburua aurkeztuko dute /6

IÑAKI GALDOS / EA GIPUZKOA

“Erraztiri esan diot ibilbide komuna egingo dugula alderdiaren alde lan eginez” /7

BERGARA

Euskadiko Karate Txapelketa jokatu da domekan /11

ASTEKO GAIA: LOKALAK ETXEBIZITZA BIHURTU /2-3

Lehen lokal komertzial, orain etxe

Ibarrean 45 bat dira dagoeneko etxebizitza moduan erabiltzeko egokitutako lokal komertzialak. Arrasatek, Oñatik, Aretxabaletak eta Eskoriatzak hori ahalbidetzen dute, udal ordenantzen bidez.

Hain zuzen, Mondragoe izan zen Euskal Herrian horren aitzindari. Etxebizitza eskasiari erantzuna emateko sortu zen neurri hori, eta, oztopoak dauden arren, ibarrean arrakasta du. /2-3

Ruper Ordorikak kontzertua eskainiko du Oñatin

Ruper Ordorikak kontzertua eskainiko du bere herrian, Oñatin, abenduaren 20an. Azken diskoa, *Kantuok jartzen ditut*, aurkeztuko du Zubikoa pilotalekuan. Eta batzen duten dirua *Berrria* egunkariari eta Irunberriko Arangoiti ikastolari laguntzeko izango da. Kontzertuaz gain, beste ekitaldi batzuk ere antolatutako dituzte *Zaindu maite duzun hori*—Ruperren azken diskoko kantu baten izena—leloaren inguruan. Esaterako, mahai-inguru bat izango da euskararen egoeraren gainekoa.

■ *Debagoiengan eskainiko duen bakarra izango da*

■ *Batzen duten dirua, 'Berrria' eta Arangoiti ikastolarendako*



GOIENKARIA

Abenduaren 20an izango da emanaldia.

Goiena.net Debagoieneko ataria Bilatu

Antzuola Aramaio Aretxabaleta Arrasate Bergara Elgeta Eskoriatza Gatzaga Oñati Debagoiena

Babeslea

Fundación Grupo Eroski

Antzuola

Honi buruz

- ▶ Zer da goiena.net?
- ▶ Laguntza
- ▶ Arauak
- ▶ Harpidetu
- ▶ Publizitatea

Publizitatea

Viajes Eroski Bidaiak

Sustatu

Eztabaidak

- ▶ **ANTZUOLA:** Haurtzaindegia Antzuolan, beharrezkoa? (Usua Agirre 2003/11/18-16:51)
- ▶ **ARAMAIO:** Herrian dagoen zine eskaintza nahikoa al da? (Aitor M 2003/11/26-11:34)
- ▶ **ARETXABALETA:** Zer gurako zenuke aurtengo Negu Kulturala egitarauan egotea? (Mara-mara 2003/11/24-15:21)

Gaur albiste

ARRASATE

Azkoagainen galduta (3-2), Mondrak behera egin du sailkapenean

Xabier Urzelai | 2003-11-18 | 12:59

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere Aloña Mendik eta Mondrak derbi ikusgarria jokatu zuten domeka arratsaldean

Azkoagainen. Lehenengo zatian Mondra gehiago izan zen (1-2), baina bigarren zatian Aloña Mendik eraso jokoa eginez partida irabazi zuen (3-2).

Bailaran albiste

Aurten Gabonetako argi gutxiago jarriko dituzte

ARETXABALETA | Amagoia Lasagabaster | 2003-11-26 | 18:12

Astelehenean jarri zituzten Gabonetako aurreneko argiak. Aurten, lau zuhaitz bakarrik apainduko dituzte. Udalak 1.200 euro gastatu ditu.

San Martin eskolako lanen bigarren zatia bukatzeaz

ARAMAIO | Ubane Madera | 2003-11-26 | 15:45

Aspaldian lanak egiten dabilta San Martin eskolan. Hain zuzen ere, eskolak behar dituen konponketak-eta egiten dabilta. Hiru zatitan banatu dute eskolako proiektu osoa. Eta jakinarazi digutenez, dagoeneko bigarren zatia dagozkie lanak bukatzeaz daude.

Lastertasun Handiko Trenari lehentasuna

Zure herriko albisteak

Eskoriatza

- ▶ Markesina berria Aranburuzabala kalean
- ▶ Santa Zezilia eguna ospatzen
- ▶ Bertsotan Euskara Landu ikastaroa emango du Xanti Iparragirrek
- ▶ Maialen Lujanbiok Bertso Txapelketako finalerako bidea hartu zuen Eskoriatzan
- ▶ Gipuzkoako Bertso Txapelketako finalerdia

Bailarako agenda GAUR

- ▶ **BERGARA** Sendabelar ikastaroa
- ▶ **BERGARA** Amnesty International-en erakusketa
- ▶ **OÑATI** Kanta-afarirako izen-emate epea, zabalik.
- ▶ **ARRASATE** Arrasateko Tailaginen Elkarteko kideen lanak
- ▶ **ESKORIATZA** Gabonak marrazkitan
- ▶ **ARETXABALETA** Euskal Herriko historiaren gaineko hitzaldia

'Goiena.net' Internet ataria, laster abian

Datorren martitzenean, abenduak 2, aurkeztuko dute jendaurrean www.goiena.net, Debagoienarendako Internet ataria. Goiena komunikazio kooperatibaren zerbitzu berri horren bidez, ibarreko informazio guztia jaso ahal izango dugu, berehalakotasun eta erosotasun osoz. Albisteez gain, herriotako ekitaldion berri jaso du herritarrek, eta parte hartzeko aukera izango du. /13-14

Goienka2a

Gabonetako zeure opariak, geurean

marrubi

zerkaosteta 16 (arrasate)

Ford **Focus C-MAX** berria

Gozatzeko pentsatuak, irauteko eginak

MUGARRI AUTOAK

Araba Etorbidea, z/g ARRASATE

Hutsik zeuden lokalak

- Ibarrean 45 lokal egokitu dira han bizi ahal izateko
- Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Oñatin egin daiteke
- Erdigunetik kanpoko lokalak erabil daitezke, merkataritza ez kaltetzeko

LEIRE KORTABARRIA

Ibarreko lau udaletan –Arrasaten, Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan–, posible da lokal komertzialak etxebizitza moduan erabiltzea. 2000tik hona, 45 dira Debagoienan moldatu diren lokalak, eta laster gehiago izango dira, hainbat herritarrek dagoeneko baimena eskatu diote-eta horretarako euren udalari. Bestalde, Antzuolak irailean onartu berri du antzeko erregulazio bat; eta Bergarako Udalak “mahai gainean” du gai hori.

Neurriaren arrakasta, hortaz, ezin daiteke zalantzan jarri. Arrasate dago aurreratuen: hiru urteotan, 26 lokal bihurtu dira etxebizitza, eta 11 eskari aztertzen dihardu Udalak. Oñatin horrelako hamar bat etxebizitza egin dira, eta beste hainbeste eskaera aurkeztu dira. Eskoriatzan zortzi dira mota horretako etxebizitzak, orain arte. Aretxabaletan oraingoz ez dago horrelako etxebizitzarik, baina eskaera bat badu Udalak.

ARRASATE, AITZINDARI

Arrasate udal aitzindaria izan zen Euskal Herri osoan; han, 2000n onartu zen lokal komertzial hutsak etxebizitza moduan erabili ahal izatea posible egiten zuen ordenantza. Orduetik hona, etxebizitza demandak eta lurzoru eskasiak bultzatuta, Euskal Herriko beste hainbat udalek jarraitu dute Arrasateren eredu, ibarrekoak tartean, jakina.

Kontua da ohiko etxebizitzek baino azalera txikiagoa dutela orubeok –ibarrean, 40 m² da gutxieneko azalera lokal bat helburu horretara bideratu ahal izateko–, eta, etxebizitza eginda eduki arte, hainbat tramite bete behar direla; hala ere, herritarrengan oso harrera ona ari da izaten neurri hau. Hori dela-eta, gehienetan, lokalon jabeek, hau da, partikularrek, erabakitzen dute lokala egokitzea eta eurek erabili edo errentan jartzea. Badira ere lokala apropos erosi dutenak ere –bikote gazteak, gehienetan– etxebizitza moduan erabiltzeko. Azkenik, lokalon arrakasta ikusita, gero eta gehiago, promotorak hasi dira lokalak erosi eta euren kontura egokitzeko. Momentuz, ordea, horiek oso gutxi dira.

OZTOPOAK

Esan bezala, oztopoak egon badaude. “Luzeena eta zailena izan zen baimenak eskatzea, tramiteak egitea...”, dio Oñatiko bikote batek. Laura Olivenza mondragoetarrek bikotekidearekin erosi zuen lokala, eta iritzi berekoa da: “Prozesu konplikatu da, ze bizilagunen baimena eskatu behar da, arkitekto bat kontratatu, proiektua aurkeztu... eta luze jotzen du”, diosku.

Etxebizitzak hainbat baldintza bete behar ditu, eta askotan, eraikin horretako bizilagunek dute azken hitza. Hala gertatu zitzaion Laura Olivenzari. Ordenantzei jarraituz, lokalen sarrera eraikinaren behebarrutik egokitu behar da; ezin da zuzenean kaletik sarrera bat ipini. Hori



LEIRE KORTABARRIA

Lokalok egoitzaren estetika orokorra errespetatu behar dute kanpoaldean.

dela-eta, behebarruari eragiten zizkioten lanak ziren premiazkoak. “Eraikin osoari eragingo zien lan horrek, eta bizilagunei baimena eskatu behar izan genien. Zorionez, ez ziguten inongo trabarik ipini”, dio Laurak.

Kasu horretan guztia arazo barik egin zen arren, ez da berdin gertatu kasu guztietan. Bizilagunek oztoporen bat ipiniz gero, Udalak ez du zer esanik. Horri aurre egiteko, bikote gazte batek konponbide bat asmatu zuen: “Lokalaren jabearekin tratua egin genuen eta esan genion, bizi-

lagunei galdetu eta baiezkoa lortzen bagenuen bakarrik egingo genuela aurrera erostetarekin; bestela, ez”.

IBARREKOAK, OSO POZIK

Zailtasunak zailtasun, ordea, emaitzak merezi du; hala erakusten dute ibarreko datuek. Modu honetara bizi direnak zein tramite guztietatik pasa direnak pozik daude erabakiarekin: “Mota honetako lokal asko daude ezertarako erabiltzen ez direnak. Baldintza minimo batzuk beteta, ez luke arazorik egon

Beharra duenari gauzak erraztea

Neurri hauek hartu dira ibarreko etxebizitza merkatuarendako oxigeno-poltsa moduan. Asmo nagusia da beharra dutenak etxebizitza edukitzea; hori dela eta, urtebeteko epea ematen dio udalak baimena eskatzen duenari beharrezko lanak egin eta norbait han bizitzen jartzeko. “Etxebizitza beharra demostratu behar da, eta jakin beharra dute han norbait bizi dela”, diosku Laura Olivenza arrasatearrak. Horren helburu nagusia argia da: espekulazio inbiliariora saihestea.

Udalok dioskutenez, orain arte, baimena eskatzen “gehienak” partikularrek izan dira. Hainbat kasutan, ordea, eraikuntza enpresek izan dute lokalak erosi, moldatu eta gero saltzeko ekimena. Etxebizitza merkaturako aukera berri –eta oso erakargarri– bihurtu dira lokalok, bai erosleendako, bai eta eraikuntza promotorendako ere. Baina, aukera hau indartzen doan heinean, espekulazioaren mamua kontuan hartzekoa izango da, nahiz eta oraingoz gure udalek ez duten horrelakorik gertatu denik antzeman.



*Astelehenean,
abenduarak 1,
zabalik Arrasateko
Maala errebaletan
Zatoz!*



, etxebizitza txukunak



GOIATZ ARANA

Lokalak etxebizitza moduan egokitzea irtenbide bikaina izan da ibarreko askorendako. "Loteria tokatzea bezala izan da", dio Karmen Iturbe arrasatearrak.

behar lokalok etxe moduan egokitze", dio Fabian Bermejo oñatiarrak. Etxea errentan jarri zuenetik, interesa zuen bat baino gehiago etorri zaio ate joka.

Era honetako etxebizitzek abantaila praktiko asko dituzte: sarbide errazagoa dute, eta eda-detuendako, adibidez, aproposak izan daitezke. Bestalde, lokala

egokitzerako orduan, jabeak askatasun handia du barne-distribuzioa erabakitzeko. Erraza da ikusten, oztopoen gainetik, zergatik duen hainbeste arrakasta

ekimen honek. Izan ere, batzuen-dako, arazo larri baten konponbidea izan da. Hala dio Karmen Iturbe mondragoetarrak: "Loteria tokatzea bezala izan zen nire-tako lokal honetan bizi ahal izate". Karmen alabarekin bizi da gaur egun Arrasaten. "Soldata bakarrarekin, zailtasunak nituen etxebizitza bat lortzeko. Udalak ordenantza onartu eta segituan bururatu zitzaigun gurasoon lokal hau egokitzea", dio Karmenek. Hortaz, zailtasunak zailtasun, ibarrekoondako inbertsio ona izan da hau.

Ibarreko askorendako, arazo larri bati erantzun egokiena izan da lokala egokitzea

Eraikin osoari eragiten dioten lanak egin behar badira, bizilagunek dute azken hitza

Tramiteak luze jo dezake, baina abantaila praktiko ugari eskaintzen dituzte etxebizitzok

Bete behar dituzten baldintzak

- 1. EZ EDOZEIN AUZOTAN**
Lokalak helburu komertzialekin erabiliko ez diren auzoetan bakarrik.
- 2. GUTXIENEO AZALERA**
Ibarreko herriok onartutako ordenantzetan, 40m²-ko azalera ezartzen da.
- 3. DERRIGORREZKO GELAK**
Sukaldea, egongela, biko logela bat eta jantzitako bainugela.
- 4. GUTXIENEO ALTUERA**
Geletan, 2,50 metrokoa; murriztu ahal izango da 2,30era, komunean, korridoreetan...
- 5. SARRERA, ATARITIK**
Sarrera behe-barrutik egin beharko da, ez zuzenean kaletik.
- 6. LEIHOAK**
Kanpoaldeko fatxadetan, tarte irekiak izan beharko ditu; sukalde, egongela eta logeletan, derrigorrez.
- 7. ESKAERA ETA OBRAK**
Eskaearekin batera, jabeak obra proiektua aurkeztu beharko du.
- 8. BIZILAGUNEN BAIMENA**
Lanek eraikinean eragiten badute, bizilagunen baimena ezinbestekoa izango da.
- 9. ESTETIKA ERRESPEKTATU**
Kokatuta dagoen eraikineko oinarri estetikoak jarraitu beharko dira.
- 10. URTEBETEKO EPEA**
Baimena lortu eta urtebetetera, lanak bukatuta eta etxea okupatuta egon beharko dute.



**IRIZAR
ESTANKOAK**



**Gabonetako
Loteria dugu**



Enkarguak hartzen dira.
Sobretxoak gertu.
Zorte on!



Foruen enparantza 6 Tel.: 943 78 00 15 OÑATI



PREVISORA BILBAINA
ASEGURUAK

Osasun zerbitzuen eskaintza
zabala barne duen
HERIOTZA-ASEGURU bakarra.

Hitzartutako mediku, dentista,
optika-kate eta bainueteetan
DESKONTUAK

Zerrajera kalea 4, 1.
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 19



MEMESA SL

Industri hornidurak

943 71 24 25



Euskal Y trenbide proiektua dela eta, aldeko eta kontrako jarrerak azaldu dira.

Lastertasun Handiko Trenari lehentasuna ematea eskatu dute

Hainbat gizarte eragilek idatzia aurkeztu diote Europako Batasunari

IRATI AGIRREAZALDEGI

Lastertasun Handiko Trenaren barneko Euskal Y trenbide proiektua lehenesteko eskatu dute hainbat gizarte eragilek. Bestalde, AHT Geldirik Elkarlana taldeak manifestaziorako dei egin du plangintza honen aurka protestatzeko.

Lastertasun Handiko Trenaren Madril-Gasteiz-Dax ibilbidearen barne dagoen Euskal Y trenbide proiektua ez da berehala mar txan jarriko. Hori dela eta, hainbat gizarte eragilek plangintza hau lehenesteko eskatu du Europako Batasunera bidalitako idatzi baten bidez.

Idatziaren sinatzaileen artean daude Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako komertzio ganberetako eta

enpresaburuen elkarteetako presidentek, Eusko Ikaskuntzako presidentea eta Euskal Herriko, Deustuko eta Mondragon Unibertsitateko errektoreak.

Horren harira, Eusko Jaur-laritzako Garraio Sailak esan du euskal trenbide sare berria Euskadi eta Europa Atlantikoarentzat beharrezkoa dela.

KEZKA

Sinatzaileak kezkatuta azaldu dira proiektua berehala mar txan jartzeko zerrendatik kanpo geratu delako. Bestalde, esan dute Euskal Herria historikoki pasabide pribilegiatua izanik Europako garraio sareetatik kanpo uztea erabaki larria dela, eta etorkizun beltza iragartzen digula.

Gainera, jakinarazi dute azpiegitura hori ez eraikitzeak

euskal ekonomiari ondorio txarrak ekar diezazkiokeela, proiektu estrategikoa izanik, eraiki ezean, gure etorkizun ekonomiko eta soziala kolokan geratuko liritekeelako epe luzera.

TRENAREN AURKA

Guiztiak ez daude Lastertasun Handiko Trenaren alde, ordea. Proiektuak eragingo lituzkeen kalte ekologiko, sozial eta ekonomikoengatik proiektua gelditze eta bertan behera lagatzeko hainbat herritarrek egin dute eskakizuna.

AHT Gelditu Elkarlana Taldeak, esaterako, proiektua geldiarazteko ekintza bateratuak deitu ditu, eta horietako bat da, hain zuzen ere, datorren abenduaren 8an Durangon izango den manifestazioa.

Datorren urterako 7 milioi eta erdi euroko aurrekontua aurkeztu du Mankomunitateak

Aurtengoarekin konparatuta %36ko igoera izango du 2004koak

I.A.

Hilero egin ohi duten moduan, joan zen eguaztenean bilera izan zuten Debagoieneko Mankomunitateko ordezkariak Oñatiko udaletxean. Beste hainbat gairen artean datorren urterako aurrekontuaren aurkezpena izan zen hizketagai nagusi.

2004rako Mankomunitatean prestatu duten aurrekontua 7.497.870 eurokoa da, eta iaizkoe-kin alderatuz gero, %36ko igoera izango du. Hain zuzen ere, Ingurumen Sailak izango du igotza handien: % 65eko gorakada, hain zuzen ere.

Oñatiko bileran Inazio Lakuntza Mankomunitateko presidentek aurkeztu zituen aurrekontuak, eta orain epe bat ireki dute honen gaineko proposamenak jasotzeko. Ondoren, abenduko bileran, aurrekontuok onartzea espero dute. Aurrekontua EAJK eta EAK prestatu dutenez, ez da zaila izango aurrera egitea. Izan ere, bi alderdi hauek gehiengo osatzen dute Debagoieneko Mankomunitateko ordezkarien artean.

Aurrekontuena ez ezik beste gai batzuk ere izan ziren mahai gainean eguazteneko bileran. Garraioaren gaiaz egin zuten ber-

ba. Batez ere autobusez. Izan ere, Mankomunitateko azken batzarraren autobusen arazoa konpontzeko batzordea eratzea onartu zen. Eta batzordearen lana zertan den azaldu zuten.

Bestalde, Akeiko zabortegean egingo diren ekimenak direla eta IHOBE erakundearen eta Mankomunitatearen artean hitzarmena sinatzea eskatu zuten.

Ondoren, plan estrategikoari hasierako onespina eman zioten. Azkenik, informazio kanpaina bat abiaraztea ere onartu zuten. Honen bidez, dendari eta tabernariei kartoiak biltzeko zerbitzuaren berri eman nahi zaie.

Tokiko hedabideen etorkizuna aztertuko dute hainbat adituk

'Arrasate Press' omenduko dute jardunaldiotan

I.A.

Tokiko komunikabideak azken urteotan asko aldatu direla eta, etorkizunari begirako hausnarketan egin asmoz Topaguneak jardunaldiak antolatu ditu astebururako. Bertan, toki hedabideen aitzindari izan zen Arrasate Press omenduko dute.

Hamabost urte dira Euskal Herriari aldizkarien fenomeno abian jarri zela.

Urteen joanean gauzak aldatu egin dira eta ondorioz, Euskara Elkarteen eta Herri Aldizkarien Topagunean ezinbesteko iritzi diote tokiko hedabideen gaineko gogoeta egiteari. Horretarako, jardunaldiak izango dira Zamudioko Parke Teknologikoan gaur, barikua, eta bihar, zapatua.

Prentsa idatziari dagokionez, Euskal Herriko kasuak ezagutzeaz gain, Galeskoaren berri ere izango da. Bestalde, irratia, telebista eta multimedia izango dira aztergai. Eta tokiko hedabideak kudeatzeko proposamenak landuko dira. Bide batez, Topaguneak Asteon telebista astekari berria aurkeztuko du jardunaldietan.

Jardunaldi hauetan Goiena taldeko hainbat debagoiendarrek hartuko dute parte. Bertan izango dira, besteak beste, Joxe Mari Muxika Topaguneko lehendakaria, GOITBko Gorka Etxabe, Inazio Arregi Goienako zuzendaria, Goienako Telematika Saileko arduradun Iban Arantzabal eta



GOIENKARIA

Arrasate Press-en lehenengo zenbakia.

Maria Agirre Arrasate irratiko zuzendaria.

Zamudiokoak etorkizunari begira egindako jardunaldiak badira ere, euskarazko herri informazioa lantzen aitzindaria izan zen Arrasate Press ez dute ahaztuko jardunaldiotako antolatzaileek. Izan ere, datorren abenduaren 2an beteko ditu aldizkariak 15 urte. Hori dela eta, jardunaldien amaieran omenaldi xumea egingo diote.

Prentsa idatziaz ez ezik, irratiaz, telebistaz eta multimediaz ere jardungo dute



Eibar-Gasteiz autobidearen aurka protestan

Bergarako, Eibarko, Elgoibarko eta Sorluzeko gazte batzarrek deituta, Eibar-Gasteiz autobidearen aurkako protesta egiteko martxa izan zen zapatuan. Bergarako gaztetxean hamarretakoa egin eta berbaldi informatiboa entzun ostean, Autopista zeinen onerako? lelopean Sorluzerantz abiatu ziren eta bertako gaztetxean bazkaldu zuten. Martxak Eibarrerako bidea hartu zuten, eta han afaldu eta gero kontzertuekin amaitu zuten protesta ekintza. /I.A.

Ehunka lagun batu ziren Arrasaten, azken atxilotetak salatzeke

Altzua, Azkarate, Otaegi, Garaiondo eta Letona espetxean daude

IRATIAGIRREAZALDEGI/UBANE MADERA

Joan zen asteko atxiloteten aurka protestatzeko manifestazioa izan zen zapatuan Arrasaten *Gure delitua euskal herritarra izatea. Stop errepresioari!!* lelopean. Atxilotuek espetxean jarraitzen dute.

Joan zen astean, martitzen goizaldean egindako polizia operazioan Arrasaten atxilotutako Saioa Altzua eta Gaizka Azkarate baldintzarik gabe espetxeratzeko agindua eman du Baltasar Garzon Espainiako Auzitegi Nazionalako epaileak. Iker Heredia ETako kidea etxean hartu izana egotzi die, eta Alcalá eta Navalcarnero kartzelara eramantuzte.

Bestalde, operazio berean atxilotutako Xabier Otaegi lasartearra, Oñatiko R.M. Zuazola-Larraña institutuko irakaslea, Soto del Real espetxean sartu dute ETari laguntza eman dion akusaziopean. Otaegik presioak eta mehatxak jaso dituela esan du. Bere lankide eta ikasleek elkartasuna adierazteko kontzentrazioak egin dituzte.

Mikel Garaiondo Osintxun bizi den eibartarra ostegunean atxilotu zuten eta Soto del Real espetxera eramantuzte. "ETako kaptazio aparatuko kide izatea" egotzi diote. Askatasunak aditzera eman duenez, inkomunikatuta egon den denboran tratatu txarrak jasan ditu Garaiondok.



OLAIA MONDRAGON

Gure delitua euskal herritarra izatea. Stop errepresioari lelopean batu ziren.

Frantziar atxilotutako Igor Letona arrasatearra, berriz, La Santen preso sartzea erabaki zuen Laurence Levert epaileak. Gaizkile elkarteko kide izatea leporatu diote, besteak beste.

Azken atxiloteta hauen aurka protesta egiteko, *Gure delitua euskal herritarra izatea. Stop*

Atxilotuetako batzuek tratatu txarrak eta presioak jaso dituztela esan dute

errepresioari!! lelopean ehunka lagun elkartu ziren zapatuan Arrasaten.

ERREPRESIOAREN KONTRA SALAKETA
Errepresioa eta agente armatuen presentzia areagotu egin dela salatzeke prentsaurrekoa egin du astean Arrasateko talde batek. Euskal Herrian salbuespen egoeran bizi gaitela esan zuten, eta azken atxilotetak salatu zituzten.

Besteak beste, salatu zuten herri-mugimenduan dabilzan kideek polizia-agente armatuen presentzia sumatu dutela.

Egoera latza izanda ere eurek presoan alde lanean segituko dutela esan zuten, baita horretarako herritarren laguntza eskatu ere.

Aretxabaletako proiektu bat, Toribio Echevarria sarietako finalean

Dualia enpresak interpretazio eta itzulpen zerbitzua aurkeztu du

I.A.

Eibarko Udalak eta BIC Gipuzkoa Berrilanean antolatutako Toribio Echevarria lehiaketan, aurten aretxabaletar batzuen proiektua finalista izateko aukeratu dute.

Sormena eta berrikuntza teknologikoaren adierazle diren proiektu eta enpresa asmo berriak saritzen dira lehiaketa honetan. Izan ere, antolatzaileen helburua, besteak beste, enpresen garapena bultzatzea da.

Finalista izan den Aretxabaletako enpresak Dualia du izena. *Enpresa asmoak* atalera aurkeztu zuten proiektua produktu berri baten oinarritutako interpretazio eta bat-bateko itzulpen zerbitzua da, eta Donostiako beste hiru enpresarekin izan da lehian.

LEHIAKETAN 21 LAN

Toribio Echevarria lehiaketako aurtengo edizioan guztira 21 lan aurkeztu dituzte. Aretxabaletarrak finalista izan diren *Enpresa asmoak* sailean 14 proiektu eta *Sormen eta berrikuntza teknologikoa enpresan* atalerako gaituzteko zazpi lanak.

Guztira, 100.000 euro baino gehiago emango dituzte saritan. Enpresa Asmoen atalean irabazleak 6.000 euro jaso ditu dirutan, 18.000 euroko garapen teknologikoa eta 9.000 euroko laguntza aholkularitza arloan.

DEBAGOIENEAN LABUR

Dolu eguna izan zen HUHEZIn ostiralean, Elorrioren istripuz hildako ikasleen omenez

Dolu eguna egin zuten joan zen astelehenean Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Izan ere, joan zen barikuan Elorrioren auto istripuan hil ziren hiru neskek bertako ikasleak ziren. Istripuan Alazne Landa elorriarra, Amaia Goxencia durangarra eta Maria Ugarte zornotzarra hil egin ziren, eta Iratxe Aguilar eta Iratxe Bernedo zornotzarra, hauek ere HUHEZIk, Gurutzeetako ospitalean daude. Bi ekitaldi egin zituzten ikaskideen omenez. Goizean testu bat eta poema batzuk irakurri zituzten, eskutik hartuta.

Felix Marti irakaslea iraultza baketsuez jardun zen Arizmendiko Topaketetan

Kataluniako Unescoko Zentroaren zuzendari Felix Marti filosofoak *Iraultza baketsuak XXI. menderako* izenburupean hitzaldia egin zuen joan zen egunean Biteri ikastetxe nagusiko aretoan. Gizarte Zientzien inguruko hainbat ikerketa egin ditu Martik eta 1995ean Unescoren Giza Eskubideen urrezko domina jaso zuen.

Bergara eta Antzuola arteko errepidea berriz itxi dute erorketa arriskua dela-eta

Eguaztenean itxi zuten, euriarengatik Eskusarte harrobi zaharrean lur eta harri erorketak egon direlako. Horrekin batera, harrobitik gertu dagoen Urteaga 29ko bost familiak ere etxetik atera zituzten. Maiatzean gauza bera gertatu zen eta errepidea denbora luze egon zen itxita. Bergarako alkatea Aldundiko arduradunekin batzartzeko zen egunean arazoari irtenbidea emateko. Oraingoz Bergarako Ekialdeko saihesbidea erabili beharko dute ibilgailuek.

Zenbait zuzenketa Enrike Letona askatzeko Bilgunearen ekintzen gainean

Enrike Letona askatzea eskatzen duen Bilgunea deituta azaroaren 15ean manifestazioa izan zen Arrasaten. Bertan, herritarrez gain, hainbat ordezkari politikok hartu zuen parte. Horren berri eman genuen joan zen astean GOIENKARIAN, baina manifestazioko pankarta eramantuzten artean EAko Luis Etxeberriar-teun eta EAjko Andoni De Bedialauneta ere bazirela argitu behar dugu. Bestalde, Bilguneak parte hartu zutenei eskerrak eman nahi dizkie. Bide batez, jakinarazi dute ez dutela bertso saiorik antolatuko urtea amaitu baino lehen, prentsan hala agertu bada ere.



Mahai-inguruan euskalgintzaz berbetan

AED elkarteak 20 urte beteko dituela eta hainbat ekitaldi antolatuzte. Besteak beste, azken erasoan aurrean euskalgintza babesteko neurriak bilatzeko asmoz mahai-ingurua egin zuten Joxe Mari Muxika Topaguneko lehendakariak, Xabier Huizi Gipuzkoako euskararen normalizazio zuzendariak, Martxelo Otamendi *Berria*-ko zuzendariak eta Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkariak, Xabier Letona moderatzaile zela. Euskalgintzari buruzko iritziak eman zituzten /ARGAZKIA: ARGAZKI PRESS/I.A.

RUMBA

PLATER KONBINATUAK, OGITARTEKOAK...

Obrak direla eta,
orain EXPRES
kafetegian gaude

Maalako Errabala 8, ARRASATE

ANTZUOLA

Txatxilipurdik gazteen aisialdia ikertzeko proiektua aurkeztu du

Nerea Altuna Txatxilipurdiko kidea arduratuko da Antzuolako 12 urtetik 17 urte bitarteko gazteen aisialdia aztertzeaz. Datoren lau hilabeteetan ikerketa egingo du Txatxilipurdik. Proiektu hori pasa den eguaztenean aurkeztu zuen Nerea Altunak.

Gazteei inkestak egin-gazteek Txatxilipurdik; gainera, herriko eragileak elkarriketatu eta eztabaida taldeak sortuko ditu. Ikerketa amaitzean txosten bat idatziko dute eta horren arabera gazteei zer eskaini erabakiko du Udalak. /ENEIDA ITURBE

ARAMAIO

Zapatuetan zinema emanaldiak ematen hasiko dira datorren hilean

Herriko zinemazale talde baten eskaera aztertu, eta zapatuetan zinema emanaldiak egiten hasia onartu du Udalak. Saio horietan ez dituzte edozelako filmak emango, sariren bat dutenak baizik. Hala, erabaki dute Gabonetan hasiko direla zapatuetako emanaldiekin, eta dagoneko zehaztu dute egitaraua. Hain zuzen ere, Quentin Tarantinoren hiru film aukeratu dituzte. Hala, abenduaren 20an, *Pulp Fiction* emango dute; abenduaren 26an, *Jackie Brown*; eta urtarrilaren 2an, *Reservoir Dogs*. /U.M.

ELGETA

Gabonetako argiak abenduaren 19rako ipiniko dituzte plaza inguruan

Gabonetarako hilabete eskas falta den honetan jaiak girotzeko prestakizunetan hasiak dira herrian. Udaleko zinegotzi guztiak ados ez egon arren, argiak ipintzea erabaki dute eta abenduaren 19rako plazako zuhaitzetan, udaletxean eta arkuan jarrita egongo dira. Bestalde, Olenzero lehiaketa antolatuko dute abenduaren 20rako. Edozein herritarrek har dezakete parte eta behin onena zein den aukeratuta, irudiak herriko hainbat txokotan izango dira ikusgai. /I.A.



BERGARA

Migel Altuna institutuari errekonozimendua kalitatean

Migel Altuna Lanbide Heziketako institutuak errekonozimendua jaso du *bost esek* deritzon metodologia ikasketean ezartzeagatik. Errekonozimendua Euskal Erakundearen, eskutik jaso du, IX. Kalitatearen Europako Astearen. Migel Altunarekin batera, erkidegoko lau enpresak ere jaso dute errekonozimendua. Horieta bat, gainera, debagoiendarra da: Oñatiko Ulma enpresa, hain justu ere.

Bost esek Japoniatik datorren metodologia da eta s bakoitza urrats bati dagokio: antolaketa, ordena, garbitasuna, ikus kontrolak, eta diziplina eta kontrolak. Guztiak ezarri eta horien arabera jarduten dute eskola-ko ikasle eta irakasleek. Besteak beste, segurtasuna, lan baldintzak eta eraginkortasuna hobetu dituzte. /M.B.

OÑATI

Antzezlan historikoa, bisita gidatuak eta tren turistikoa abendurako

Oñatiko ondarea ezagutzera emateko, hainbat ekintza antolatu dute Oñatiko Turismo Bulegoak eta Kultura Sailak abendurako: bisita gidatuak, gai historikoko antzezlan bat, tren turistikoa...

LOPE DE AGIRREAREN BIZITZA

Lope de Agirre konkistatzailearen eta alaba Elviraren bizitzan oinarritutako *Elvira Dorado* lana eskainiko du Bartzelonako Iliacan taldeak, abenduaren 12an, Santa Ana antzokia. Ikus-entzunezkoen atalean, bestalde, Gabonetako kontzertu berezia antolatu da: abenduaren 21ean, Oñatiko Musika Banda, Txistulari taldea, Oñati Abesbatza, Parrokiako korua, Ganbara abesbatza eta Txantxiku Ikastolako abesbatza izango dira parte-hartzaileak.

GERARDO ELORTZAREN ESKUTIK

Abenduaren 6tik 8ra, Oñatiko monumentu garrantzitsuenak delako bisita

programatuak egongo dira. Sancti Spiritus Unibertsitatea, Mikel Deunaren parroikia eta Bidaurretako monasterioa erakutsiko dituzte. Hilaren 20an, ostera, Oñati ezagutzen bisita gidatua eskainiko dute, eta aparteko gidaria egongo da: Gerardo Elortza.

Azkenik, hilaren 29an eta 30ean, Oñatiko konterririk utzitako ondare historikoa ezagutzen delako tren turistikoa egongo da. Segidan, Gebaratarren kriptak eta Rodrigo Mercado de Zuzola Gotzaiaren kapera bisitatuko dituzte, San Migel Elizan, unibertsitatetik abiatuta. /LEIRE KORTABARRIA

Zertzelada

Oñatiko ondarea ezagutzera emateko tren turistikoa antolatuko da abenduaren 29an eta 30ean, lehenengo aldiz Oñatin.

ARRASATE

Pedro de Biteri filantropoaren gaineko liburua aurkeztuko dute

Biteri egoitzak 100 urte bete ditu aurten. Gaur egun Mondragon Unibertsitateko ikasleak han bizi dira, baina orain dela 100 urte Biteri Fundazioak sortutako eraikina da.

Pedro de Biteri arrasatearra filantropo izan zen. Arrasaten hainbat ekimen garrantzitsu egin zituen; tartean, Biteri eskolak sor-

tu zituen, hezkuntza bultzatzeko, Biteri Fundazioaren bitartez.

Orain, Biteri egoitzaren 100. urteurrenean, filantropoaren gaineko liburua aurkeztuko dute. Gaur izango da ekitaldia, 19:00etan, Amaia Udal Antzokian. Juanito Leibar irakasle ohi eta historialariak idatzi du. /I.B.



Biteri eskolak izan ziren Pedro de Biteriren emarietako bat.

ARETXABALETA

Aurtengo negua epeltzeko Negu Kulturala kaleratu du Kultura Sailak

Urtero moduan, Udaleko Kultura Sailak Negu Kulturala izeneko egitaraua gertatu du. Lehenengo ekitaldia abenduaren 5ean egingo dute. Azkena, berriz, urtarrilaren 24an. Tarte horretan, musika kontzertuak eta Gabon ekitaldiak izango dira, batik bat, protagonista. Horrez gain, komertzioendako erakuslehoen lehiaketa antolatuko dute. Abenduaren 8tik 31ra bitartean egingo dute eta gura duten herritarrek har dezakete parte. Udaleko Kultura Sailak 22.806 euro gastatu ditu aurtengo Negu Kulturalan. /A.L.

ESKORIATZA

Takolo, Pirritx eta Porrotx-ek azken lana estreinatuko dute zapatuan

Ekitaldi bat baino gehiago antolatu ditu Eskoriatzako Axtroki euskarra elkarteak datozten egunotarako. Bihar, esaterako, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak izango ditugu herrian. *Poxpolin Marisorgin* ikuskizuna aurkeztuko dute, 17:00etan, kiroldegian.

Eguenean, abenduaren 4an, ostera, Josune Bereziartu Ordiziako eskalatazailerik onenak *Bloketik Bulneseko Naranjora* ikus-entzunezkoa aurkeztuko die eskoriatzarrei kultura etxean, 19:00etan. /M.A.

LEINTZ GATZAGA

Amaitu berri den uso denboraldia kaskarra izan dela diote ehiztariek

Ehiztariek eguraldi oso txarra izan dute usotan egiteko aurten. Ondorioz, usok beste bide batzuk hartu eiz dituzte. "Urte txarra eskatuta ere ezin txarragoa tokatu", esan digute Gatzagako ehiztariek. "Iazko denboraldiarekin ezin alderatu. Uso askoz gutxiago harra patu ditugu aurten. Usoak erosten dizkiguten bezorei aurten izan izan diegu behar bezalako erantzunik eman", esan digu Ina Alonsok. Dena dela, azaroaren 4an izugarritzko pasea izan zen eta disfrutatzen zuten ugariz izan zituzten ehiztariek. /A.G.

Eusko Alkartasunak biltzar nagusia egin zuen joan zen asteburuan Bilbon. Datoren hiru urteotako ildoak finkatzeaz gain alderdiko zuzendaritza berria hautatzea zen biltzar honen xede nagusietako bat. Bi hautagaitza aurkeztu ziren eta horrek nahiko hauts harrotu du. Iñaki Galdos oñatiarra zen hautatu ez duten zerrendako burua. Biltzar nagusiaz egin dugu berba.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Nahiko hauts harrotu du Bilbon asteburuan izandako Eusko Alkartasunaren biltzar nagusiak. Zer gertatu da?

Alderdietako kongresu gehienetan gertatu ohi dena baino ez da pasatu. Hiru urtean behin gure alderdiak biltzar nagusia egiten du. Aurtengoan, batetik, Eusko Alkartasunaren ibilbideari buruzko eztabaida politikoa egon da. Hurrengo urterako estrategiak ezartzen saiatu gara eta gehiengo zabal batek onartu ditu. Bestetik, zuzendaritza berria aukeratu da. Hautaketa hau egiteko orduan desadostasunak izan dira bi zerrenda aurkeztu direlako. Baina modu demokratiko eta gardenean egin da aukeraketa.

Zer dela eta ez zen hasieratik zuzendaritzarako hautagai-zerrenda bakarria aurkeztu?

Ez da zerrenda bakarria aurkeztu, saiatu arren ez delako talde osoaren integrazioa lortzeko aukerarik izan. Denon helburua zen integrazioa lortzea, baina gure elkarrizketetan eta negoziazioetan ez gara ados jarri. Beraz, ezinbestean bi zerrenda aurkeztu ditugu.

Barne eztabaidak eta desadostasunak aipatu dira. Zein izan dira ezadostasun horien arrazoiak?

Zuzendaritza berrirako 12 pertsona aukeratu behar ziren. Horretarako, gure ustez, alderdiko talde guztiek, lurralde eta sentzibilitate guztietakoek, lekua izan behar zuten; gainera, bakoitzari dagokion pisua errespetatuta. Baldintza horiek ez dira egon, eta hori izan da ezadostasunak eragin dituen arrazoiak. Hala ere, eztabaida sakonak eta luzeak egon direnez, biltzar baliagarria izan da gure arteko harremanak sendotzeko, eta hori alderdiaren onerako da. Aurrera begiratu behar dugu eta baita alderdia indartu ere. Gainera, Euskal Herriak beharrezkoa du gure alderdia bezalako proiektu bat, eta orain bizi duen egoera larri, latz eta erabakigarri honetan ezinbestekoa da alderdiak sendo eta batuta egotea.

“Denok proiektu politiko beraren partaide gara eta norabide berean jo behar dugu”, esan zenuen kongresuaren amaieran. Hala ere, ezberdintasunak badira zuen artean.

Orain ez da ezberdintasunei buruz hitz egiteko momentua, gure arteko batasuna eta indarra erakusteko unea baizik. Alderdia orain dela hilabete batzuk baino elkartuago dago, eta hori erakutsiko dugu eguneroko lanean.

Zerrendetan adostasunik lortu ez bada ere, dokumentuak gehiengoaren babesa jaso du.

Gehiengo zabal baten babesa jaso du, bai. Ildo politikoari buruzko ponentziak bultzada nabarmena jaso du, zorionez.



LEIRE KORTABARRIA

Iñaki Galdos

EUSKO ALKARTASUNEN GIPUZKOAKO PRESIDENTEA

“Begoña Erraztiri esan diot ibilbide komuna egingo dugula, eta alderdiaren alde lan egin”

BESTE ALDERDIEKIKO HARREMANA

“Ateak zabalik lagako dizkiegu gainontzeko indar abertzaleei, betiere giza eskubideak eta demokrasiaren arauak errespetatzen dituzten heinean”

EUSKO ALKARTASUNAREN PONENTZIA

“Ez dugu sekula ahaztu behar gure alderdiaren izaera aurrerakoa eta sozial-demokrata, eta ponentziak hori azpimarratzen du, hain zuzen ere”

Horrek esan nahi du denok edo gehienok onartzen dugula Eusko Alkartasunaren proiektua. Nik neuk ponentzia gure batzorde eragilean aurkeztu zenean baiezko botoa eman nion, baita kongresuan ere.

Zein da dokumentu edo ponentzia horren oinarria?

Azken urteotan gertatu denari gainbegiratu egin ostean, hurrengo urterako gure alderdiak egin beharreko ibilbide politikoa ezartzen du dokumentu honek. Batez

ere, Eusko Jaurlaritzaren egitasmoa mahai gainean denean zein estrategia erabiliko dugun, beste alderdiekiko zein kolaborazio maila izan behar genukeen... Bestalde, ponentziak Eusko Alkartasunaren alderdi soziala azpimarratzen du. Azken urte hauetan oso sakon murgildu gara gure ikuspegi nazionala bultzatzeko lanean, besteak beste, Euskal Herriak bizi duen egoerak hori eskatzen duelako. Baina ez dugu sekula ahaztu behar gure alderdia aurre-

rakoa dela eta sozial-demokraziaren aldeko apustu garbia egiten duela. Beraz, hori da, hain zuzen ere, dokumentu edo idatzi honek azpimarratu duen alderdiaren izaera nagusia.

Nolakoa da une honetan beste alderdiekin duzun harremana?

Ponentzia honek onartzen du egoera den modukoa izanda beharrezkoa dela gure arteko elkarlana bultzatzea. Beraz, egoerak bere horretan jarraitzen duen artean kolaborazioa ezinbestekoa izango da. EAJrekin izan da orain artean batez ere elkar laguntza, eta aurrerantzean ere hala izango da. Dena dela, ateak zabalik lagako dizkiegu beste indar abertzale batzuei, betiere giza eskubideak eta demokrasiaren arauak errespetatzen dituzten heinean. Ildo horretatik, Aralar bezalako talde politikoei ez dizkiegu ateak itxiko.

Sabin Intxaurraga eta Angeles Iztuetak sektore kritikoaren aldekoak izanik, beraien agintaritzan izango du eraginik Begoña Erraztiri berriz alderdiko buru hautatzeak?

Ez dut uste. Dauden postuetan jarraituko dutela pentsatzen dut, edo jarraitu beharko lukete, behintzat. Izan ere, lan ona egiten ari dira nor bere alorrean. Gainera, une honetan alderdiak batasuna behar du eta Jaurlaritzan ere ez da komeni horrelako krisirik eragiterik. Erantzukizunez jokatu behar dugu denok eta alderdiko militanteontzat zilegia da kongresu batean botoa nahi duenari eta kontzientziak ematea, edo hautagai-zerrenda batean zein bestean joatea. Eta erabaki horrek gero ez luke eraginik izan behar bere postuan edo lanean.

Kongresua amaituta, Begoña Erraztiri hautaketan zure aurkari izan zena zoriordu zenuen. Bada, zer esan zenion?

Lehenengo argitu behar dut ni ez nintzela Bilbora kandidatura aurkezteko asmoz joan, nire nahia integraziozko hautagai-zerrenda bat osatzea baitzen. Baina larunbat gauean, horrelako zerrenda osatzea ezinezkoa zela ikusita, alderdiko talde batek proposatuta aurkeztu nintzen. Hala ere, ni Begoña Erraztirekin izan naiz egun hauetan eta garbi adierazi diogu ibilbide komuna egingo dugula, eta alderdiaren alde lan egin.

Zein balorazio egin dezakezu biltzar nagusiaz?

Balorazio gazi-gozoa egingo nuke. Bateatik, gozoa, Eusko Alkartasuna gardentasunaren adibide izan delako. Eztabaida interesgarriak egon dira, partaide kopurua handia eta maila altukoa izan da, eta alderdia indartzeko baliagarria izan da. Bestalde, gazia eta pena eman didana alderdian denon arteko integrazioa ez lortzea izan da. Ez naiz inor honen errudun denik esaten hasiko, kontua ez da arrazoiak batzuek edo besteek duten esatea. Denon arteko integrazioa ez lortzea izan da, beraz, nire ustez asteburuko kongresuko alderdik negatiboena.

Horrenbestez, aurrerantzean zein paper jokatuko duzu Eusko Alkartasuna alderdian?

Une honetan Eusko Alkartasuneko Gipuzkoako presidentea, Gipuzkoako Batzar Nagusietan EAko bozeramailea eta Oñatiko Udalean zinegotzia naiz. Horiek dira nik alderdian ditudan hiru karguak. Hala ere, garbi utzi nahi dut ez dudala nik erabakiko zein izan behar den alderdian jokatu behar duen papera. Talde bateko kide naizen aldetik nire alderdikideek esango dute zer nahi duten nik egin dezadan. Pasa den asteburuan ere ez nuen nik erabaki hautagai izatea, eskatu egin zidaten, eta aurrerantzean ere norbaitek pentsatuko balu han edo hemen zerbaitek egiteko gai izango naizela gustura egingo dut lan. Alderdiaren onerako den heinean lanerako gertu egingo naiz beti.

Zabalik

MARIJO
DEOGRACIAS

Covarrubia

Covarrubia izeneko herritxo batean, Burgosek probintzian, udaletxeko balakoian lau bandera ei daude: herrikoa, probintziakoa, Espainiakoa eta Norvegiakoa. Horrelaxe kontatu zidan joan zen egunean lagun batek. Zutabeaz zer idatzi ez nekiela eta 'Sanzen banderaren erabakiaz' jarduteko proposatu zidan. Jarraian, Covarrubiako kasua ekarri zuen gogora. Norvegiako bandera Burgosek herri bateko udaletxean. Europar Batasuneko kide ere ez da eta Norvegia! Nolatan Norvegiakoa? Jatetxe bateko zerbitzariari galdetu zion, nire lagunak, bandera hura han egotearen zergatia jakin nahian eta, honek zera kontatu ei zion: "Espainiakoa erregeren bat Norvegiako alaba batekin ezkondu ei zen eta, gero, edo Covarrubia- ra etorri ziren, edo Covarrubian lurperatu zuten edo antzeko zerbitzari gertatu zen" eta hura gogoratze-edo, Burgosek Covarrubia herriko udaletxeko balakoian, herriko, probintziakoa eta Espainiakoa banderekin batera, Norvegiako bandera ere eskegitzen dute.

Mendigorria herriko jaietara ere joan ei zen lagun hori behin eta ikurrina eta Espainiakoa banderak bata bestean ondoan zeudela ikusi zuen. Baina hori beste batean kontatuko dizuet. Sanzek beste ideia 'fantastico' bat izaten duenean. Orduan kontatuko dizuet, zela Mendigorriako udal hauteskundeetara inork aurkeztu nahi ez eta orduko HBk zerrenda aurkeztu eta gehiengo absolutua lortu ostean, herritarrekin ondo eraman nahian, ikurrinaren ondoan Espainiakoa bandera ere udaletxeko balakoian jartzea erabaki zuela.

Ruben Bladese abesten zuen moduan: *La vida te dá sorpresas, sorpresas te dá la vida...*

Gutunak

Bilgunearen oharra

Enrike Letona askatzeko bilguneak eskerak eman nahi dizkizue azaroaren 15eko manifestazio isilean parte hartu zenuen guztioi. Eta, bide batez, manifestazioa horren arrakastatsua izateko, lankide izan zintuztegun guzti-guztion lana ere eskertu egin nahi dugu.

Bestalde, komunikabideetan hala agertu bada ere, jakinarazi nahi dugu ez dugula bertso-saiorik antolatuko urtea amaitu baino lehen.

Bilgunea hausnartzen ari da zein nola-ko jarraipena eman ekingo den dinamikari. Ea dinamika horren hurrengo urratsa Enrike askatu dutela jakinaraztea den.

ENRIKE LETONA ASKATZEKO BILGUNEA
Arrasate

Eraso gehiago ez!

Aurten dagoeneko 82 emakume hil dira Abikotekideen eskuetan, iaz garai berean baino hamabi gehiago. Horixe da atentzioa gehien ematen duena, iritzi publikoak jakiten duena, baina badago beste errealitate bat ere, ezkutukoa, baina erabat kezagarria halaber. Estatu osoan bi milioi emakumek jasaten omen dituzte tratatu txarrak, eta bizitza osoa eman behar dute zorigaitz horren menpe, emakume jaio direlako.

Gertakari horien presioak eraginda, botere publikoek gogortu egin dituzte tratatu txarrak ematen dituztenen kontrako zigorrak, neurri horrekin bakarrik dena konponduko delakoan. Baina legeek ez dute elkarbizitza moldatzen, ezta gizabanakoaren intimitatea antolatzen ere, eta agintari-ek ongi asko dakite hori.

Komunikabide handiek kronifikatu gabeko aparteko gertakariak balira bezala azaltzen dituzte tratatu txarrak. Zergatik ez dute esaten jaiotzatik bertatik emakume gutxiesten duen gizarte baten sintomatologia direla?

Gizonok gogoeta egin behar dugu. Delinkuentziak izandako gorakadak zerikusit handia du gizarte bidegabekeriekin eta marginaltasunaren igoerarekin, eta era berean, emakumeen kontrako tratatu txarren iraupena gizarteak gizonazkeroi eta emakumezkoiei eman dien lekuaren emaitza dugu. Gizon askori, denei ez, ordea, berezkoak eta normalak

iruditzen zaizkie gizarteak aspaldi-aspalditik eman dizkigun pribilegio doilorrak.

Tratatu txarren sorburu ditugu honako hauek: misoginia, gizonazkeroi izatearen "onurei" tinko eusteko jarrera eta emakumeen kontrako edozein mesprezuren aurrean lasai geratzen diren gizon askoren jokiera. Zehaztu dezagun, misoginia emakumea bigarren mailako gizakia dela pentsatzea dela: horrelaxe ikusten du emakumea Eliza Katolikoak, eta baztertu egiten du.

Enpatia sentitzen dugun gizonok -hau da, kondizio sozialaren, arrazaren, sinesmenen eta abarren ondorioz gizarteak gorriak ikustera behartzen dituen gizaki ugarien atsekabea geure egiten dugunok- eredu izan behar dugu gainontzeko gizonentzat, emakumei egiten dieten minaz jabetu daitezen.

Desberdintasun-egoera hori lehendik datorrigun zerbaite da, baina horrek ez du esan nahi guk erantzukizunik ez dugunik. Izan ere, gure erantzukizuna aldatzea da

Aldatzea eta aldaraztea. Gizonok gizonazkeroaren nagusitasunaren estereotipoari uko egitea lortu behar dugu, gure hitzen eta ekintzen bidez.

Eredu izan behar dugu, gizon guzti-guztiak honetaz jabetu daitezten: umetatik hainbat pribilegio izan ditugun arren, horiek sufrimendu handia eragin dutela emakumeengan eta, gezurra dirudien arren, geuk ere larrutik ordaindu dugula. Autosufizientziak izaten jakin gabe, ahultasunak kanporatzeko eskubiderik gabe eta betiko erronketan murgildurik bizi izan garela kontura daitezten behingoz, hau da, aurrera egin gabe eta, are okerrago, biztanleriaren beste erdiari begietara aurrez aurre begiratu barik.

Berdintasunaren eta bestelako gizon-identitatearen aldeko borroka geure borroka ere bada. Gizonok buru-belarri murgildu behar dugu erasoaren kontrako borrokan, beste inoren esku uzterik ez dagoen lehentasuna da eta. Utzi beste alde batera begiratzeari!

HERRI ANITZA, ARALAR, EZKER BATUA,
ZUTIK ETA GAZTETXEKO GIZONAK
Arrasate

Eguneroko ogia

Garai txarrak dira euskal herritarrentzat: atxiloketak, torturak, espetxeratzea... eguneroko ogi bihurtu dira, eta horren adibide garbia dugu joan den astean bizi izandakoa. Oraingoan ere beste hiru arrasatear atxilotuak izan dira: Igor, Saioa eta Kasko,

euren delitu bakarra Euskal Herriaren aldeko askapen prozesuan lan egitea izan delarik, era batean edo bestean.

Gaur egun gure senide eta lagun presoen eskubideen defentsan lan egiten dugun guztiok, oso ondo dakigu zer gerta dakigukkeen. Delitu bilakatu nahi dute presoen alde lan egitea, ez zaie gustatzen hainbeste urteren ostean gu eurekin batera aurrera jarraitzea, ezin dute hori jasan, hori oso ondo daki Kasko-k!. Arrasateko Etxeratetik ozen eta garbi esan nahi dugu, denak etxean izan arte zinez lanean jarraituko dugula, eta bien bitartean euren eskubideak errespetatuak izan daitezela exijituko dugula non nahi eta edonori. Agirre, Zabarte, Gauxori, Gazta, Arkauz, Parot, Kepa, Eperra, Aratz, Amaia, Premin, Txus, Rupi, Kristina, Enrike, Igor, Saioa eta Kasko, har itzazue elkartzasunez eta maitasunez beteriko besarkadarik beroenak. Etxean nahi eta behar zaituztegu!

ARRASATEKO ETXERAT
Arrasate

Justizia euskaldundu

Otsailaren 15ean EHEk Bergarako epaitegian eginiko ekimena gogora ekarri behar dugu: eskualdeko herritarrei dagokien epaitegian euskaldunon hizkuntza eskubideak urratzen direla kontutan izanda, (lau epailetatik, lauak erdaldunak, abokatuak %67a bezala...) eskualdeko hainbat euskaltzale egoera hau salatu eta euskaldunon hizkuntza eskubideak berma daitezela aldarrikatzeko epaitegi aurrean elkartu ginen.

Gu musika lasai batekin sarreran elkarrekin ginen bitartean ertzainak etorri eta indarrez zein mehatxuka gure aldarrikapena oztopatu eta zigortu zuten. Horrela, sei hilabeteren ostean, bertan egon ginen 30 lagunetatik zazpiti 301 euroko isuna bidali digute PNVren esanetara.

Honen aurrean EHEk azkenaldian euskara eta euskaltzaleak jasotzen ditugun erasoak salatu, eta eraso guztien gainetik euskaldunen hizkuntza eskubideak berma daitezela aldarrikatzen jarraituko dugu.

Hileko azken zapatuan (oraingo zapatua barne) 12:00etan epaitegi aurrera agertzeko deia egiten dizuegu guztioi! Aski da, Bergako epaitegian euskaraz! Ofizialtasuna da bidea!

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
Debagoiena

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



Gaia jarrita

Topagunea Euskara Elkartearen eta Herri Aldizkariaren Federazioak tokiko hedabideei buruzko jardunaldiak antolatu ditu astebururako. Zamudioko jardunaldio-

tan euskarazko tokiko hedabideen diagnosia egin, aukerak aztertu eta estrategia egokiak prestatuko dituzte. Izan ere, 15 urte dira Euskal Herrian hurbileko informazioa lan-

tzen duten herri-aldizkariak kale-ratzen hasi zirela. Baina urteak ez dira alferrik joan, eta etorkizunari begiratzeko ordua heldu dela iritzita, hausnarketa egingo dute.

TOKIKO HEDABIDEAK ETORKIZUNARI BEGIRA

Tokiko hedabideez ari garenean, bere txikitasunean handia den sektore bati buruz dihardugu

Gauza jakina da agudo demonio igaro ohi dela denbora, eta, konturatzerako, urteak metatzen zaizkigula sorbalda gainean. Horren lekuko da, adibidez, *Arrasate Press*-ek aurten 15 urte bete izana. *Arrasate Press*-ek mugarrria ezarri zuen bere sasoiaren, berarekin batera abiatu baitzen tokiko aldizkarigintza garaikidea, herriko informazioa euskaraz jorratzen zuena, herriko jendeak landuta eta gainera modu profesionalean.

Arrasate Press-en sorrerak lurrikara txikia eragin zuen, eta, ondorioz, hurrengo urteetan beste makina bat herri-aldizkari sortu zen bazterretan.

Gertatzen dena da, ordea, lehen esan dugun moduan, denbora igaro dela ordudunik, eta gauzak ez direla jada orduan bezalakoak: orduko zenbait herri-aldizkari eskualdeka antolatuta daude gaur egun, eta beste zenbait pauso hori ematekotan dabilta; horrez gain, aldizkariaren euren jardunak ere izan du mudantzarik, teknologia berrien eta, batez ere, Interneten arribatzeak dezente aldatu dituelako bai informazioaren mundua, bai kazetarien lan egiteko modua bera ere.

Badira halaber oso aintzat hartzekoak diren beste faktore batzuk: hedabideen kontzentrazio-



AITOR ZUBEROGOITIA
Topagunearen Hedabide Saileko sustatzailea

“Interneten arribatzeak dezente aldatu du informazioaren mundua”

“Euskarazko hedabideek osasuna izateko babes-hesia eraiki beharra daukate”

prozesuak, multimedia-egitasmoak eratzeko joera...

Ingurumaria hori izanik, aurrean daukagun desafioa ez da txantxetako.

Telebistaren adibideak ondo ilustra lezake afera. Egizue kontu: uneotan Euskal Herrian ikus daitezkeen telebista-kate guztien ordu-kopurua batuta euskaraz betetzen duen ehunekoa oso txikia baldin bada, zelakoa izango da laster batean, teknologia berrien bitartez ezkaratzeraino atzerriko dozenaka telebista-kate sartuko zaizkigunean?

Argi dago kinka zail horretan euskarazko hedabideek, osasuntsu biziko badira, babes-hesia eraiki beharra daukatela.

Babes-hesi horren zutabe garrantzitsuenak bi izan daitezkeelakoan gaude:

- Batetik, geroz eta mundu globalago eta, ondorioz, erro gabeago honetan, euskarazko hedabideek identitate bat eskaini diezaiokete euskal hedabide-kontsumitzaileari.

Hori lortzeko formula-rik onena, berriz, honako hau izan daiteke: besteena modu kaskarrean kopiatzen ibili ordez, norberak produktu originala eskaintzea, norbere komunitatearen kultur ondarean eta erreferentzia-esparruan zentratuta eta aldi berean mundura zabalik izanik,

betiere norbere komunitatearen informazio-beharrak asetzera joz, kalitatea oinarri hartuta eta, ahal dela, kontsumitzaileek albo-erdaretan topatu ezingo dituzten plusak eskainita.

- Puntu horri loturik, komunitatearen informazio-beharrak asetzeko plataforma ezin aproposagoak dira tokiko hedabideak; izan ere, horixe da (euskararen normalizazioa sustatzearekin batera) euren leitmotiv nagusia.

Tokiko hedabideez ari garenean, bestalde, ez gara izaki egituratu gabeko batez ari, bere txikitasunean handia den sektore bati buruz baizik.

Uneotan, berbarako, 34 aldizkari, lau irrati eta telebista bi daude Topagunean federaturik, eta gehiago datoz bidean.

Alabaina, albo-erdaretakeo hedabide-talde erraldoiak ere, sektore honen potentzialtasunaz jabetuta, hurbileko informazioaren altxorrera gerturatzen hasiak dira. Horregatik, besteak beste, Topaguneko hedabideen arteko koordinazioa hobetzea eta, bidenabar, tokiko hedabideen sektorea bera behar bezala artikulatzea da gure bigarren erronka nagusia.

Horretan ari gara, eta, zalantzarik gabe, azaroaren 28 eta 29ko Zamudioko jardunaldiek prozesu hori indartzen lagunduko dute.

Gora eta Behera

POL-POLEKO EGUEN GAUAK




Urriaren 30ean, eguena, hasi ziren ipuin-kontalarien saioak. Asteguna izan arren, bete-bete eginda zegoen Bergarako Pol-Pol taberna. Zorionak, Oihulari Klown-ekoei, Bergaran behar dira-eta horrelako gauzak.

KOMUNIKABIDEAK



Ez denak, jakina, baina gehienak bai (baita geure inguruko batzuk ere). Hor dabilta, lelotuta, printze urdinaren ezkontza dontsuarekin. Sikiera egia esango balute... Horra hor beste arrazoi bat *Berria* erosteko.



ALEX LABAIEN
Bergarako Udalen Euskaltegiko irakaslea

Koplak

Ahokotasuna munduan

Euskal Herrian barrena inprobisazio dema. Gure bihotza zatika hartuz utzi digute heuren.

Hainbat atzerriko herri beraiekin zenbat irri. Zazpi bat egun, ia aste bat oso egin zaizkit urri.

Kuba, Mexiko, Menorka,... odola dugu borborka. Haien jarduna aditutzean soildu gerade hostoka.

Pertsonalki hitz egiten Mexikora nintzen irten. Haien dezima ta abarrekin barrua bete zidaten.

Zerbait aipatu beharra Marokotik deia darra. Beraien falta izan da goibel jarri gaituen bakarra.

Hausnartzen jarriaz tinko bi lerrotan dut bilduko: “Kantatzen duten herri xumeak ez direla inoiz hilko”.

MARKEL OTAEGI

HURRENGO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

Abizenen idazkera: *Euskatzaindiak dioena zorrotz bete behar da?*

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Vélez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Iratxe Bengoa, Arantzazu Arana
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

Roberto Zurro, ibarreko onena Maratoioan

Berrogeita hiru debagoiendarrek amaitu zuten Donostiako Maratoia pasa den domekan

E.I.

Donostiako 26. maratoia jokatu zen pasa den domekan, eta kenyarrak izan ziren protagonista. Lehen postuetan ez zen debagoiendarrik izan, baina ibarreko berrogeita hiru lagunek amaitu zuten lasterketa. Horietan onena Roberto Zurro bergararra izan zen.

Donostiako Maratoia hogeita seigarren edizioa izan zen pasa den domekan jokaturakoa. 2.400 lagunek hartu zuten parte eta horietatik 1.864 iritsi ziren helmugara. Lehenengoa Peter Korir kenyarra izan zen, bi ordu hamar minutu eta berrogeita sei segundoko denborarekin. Maratoia haren historiako laugarren markarik onena egin zuen afrikarrak.

Emakumezkoetan Remedios Alonso kantabriarra izan zen garaile, 2:45:04 markarekin. Berez, bai emakumezko bai gizonezkoetan faboritoak kenyarrak ziren, Irene Kipkorir eta Elias Chebet, baina ezin izan ziren Donostiara etorri, Kenyatik irteko arazoak izan baitzituzten.

Bigarren eta hirugarren postuak ere kenyarrek lortu zituzten, baina laugarrena euskalduna izan zen, Asier Cuevas eibartarra. Ez zen podiumera igo, baina Gipuzkoako txapeldun izatea lortu zuen.

ROBERTO ZURRO, IBARREKO LEHENA

Berrogeita hiru debagoiendar iritsi ziren Donostiako Maratoiko helmugara. Horietan azkarrena Roberto Zurro bergararra izan zen.

Bi ordu, hogeita hamazazpi minutu eta hamabost segundo behar izan zituen bergararrak maratoiko berrogeita bi kilometroak egiteko. Zortzigarren aldiz korritu zuen Roberto Zurrok maratoia eta, azken lau urteetan bezala, bera izan zen bergararra onena.

Sailkapen orokorrean 31. postuan geratu zen Zurro. Gustura dago egindako lasterketarekin, bere markarik onena lortu baitu. Eta jadanik datorren urteko maratoian pentsatzen ari da, denbora jaisteko itxaropena baitauka.



NAGORE IÑURRATEGI

Javier Moreno eta Javier García bergararrak Donostiako kaleetan domekako lasterketan.

Sailkapena eta denbora, herrika

ITURRIA: DONOSTIAKO MARATOIA

Antzuola

72	Iker Larrea Soraluze	2:42:56
181	Aitor Larrea Soraluze	2:54:30
1383	Virginia Rubio Gaminde	3:45:38

Aramaio

432	Josu Bideburu Ormaetxea	3:06:38
-----	-------------------------	---------

Aretxabaleta

614	Kepa Fernández de Arroyabe Abascal	3:14:09
622	Asier Barrainkua SAgastasola	3:14:21
1688	Jesus Rubio Beltrán de Guevara	4:06:26

Arrasate

267	Jose Luis Ugalde Orobengoa	2:58:43
286	Javier Moreno Lacasa	2:59:25

327	Vitorino Juez	3:00:46
329	Jose Ramón Gutiérrez Zillauren	3:00:47
362	Igor Martínez Pérez	3:03:19
800	Josu Cascón Rodríguez	3:21:00
955	Iñaki Jauregi Bidaburu	3:27:32
1494	Marifran Alonso Casado	3:51:01
1690	Mikel Arrese Mondragón	4:06:46

Bergara

31	Roberto Zurro Usabiaga	2:37:15
168	Javier García Alberdi	2:53:29
177	Basilio Aranburu Mujika	2:54:06
179	Javier Moreno Castelo	2:54:18
261	Javier Ibarra Moñux	2:58:38
401	Miguel Angel Aranes Usandizaga	3:05:15
460	Bixente Pagaldai Garitano	3:08:05
498	Iñaki Mujika Goikoetxea	3:09:48
596	Jon Aranzabal Ezpeleta	3:13:19
663	Joaquin González Martínez	3:15:56

806	Jesus Díaz Román	3:21:13
965	Alex Familiar Etxeberria	3:27:56
1025	Iker Herran	3:29:50
1278	Aitor Eraña Arroiaibe	3:40:44
1393	Arkaitz Mendizabal Gorrotxategi	3:46:03
1641	Manu Larrea Arana	4:00:39

Oñati

75	Joxe Mendiola Ayastuy	2:43:46
172	Joseba Blázquez Belón	2:53:56
285	Josu Odriozola Zabaleta	2:59:25
342	Imanol Guridi Dorronsoro	3:01:43
430	Iñigo Arregi Murgiondo	3:06:32
436	Asier Gorostiaga Urrutia	3:06:46
739	Martin Odriozola Biain	3:18:59
819	Imanol Larrea Leibar	3:21:56
894	Jabi Osa Isasti	3:25:11
949	Rufino Aiastuy Egaña	3:27:28
1063	Iker Jausoro	3:31:14

Bixente Pagaldai bergararrak maratoiko guztiak egin ditu

Iker Larrea antzuolarra izan zen bigarren debagoiendarra. 2:42:56 izan zen bere marka eta 72. postua lortu zuen. Ikerrek helmugako marra gurutzatu eta minutu bat baino gutxiagora amaitu zuen Joxe Mendiola oña-

tiarrak lasterketa. Ibarreko hiru-garrena eta sailkapeneko 75. izan zen bera.

IBARREKO ORDEZKARITZA

Bergara izan zen Donostiako Maratoian ordezkari gehien izan zituen Debagoieneko herria. Hamasei bergararrak egin zituzten maratoiko berrogeita bi kilometroak.

Oñatiko hamaika lagun iritsi ziren helmugara eta bederatzirek arrasatear. Antzuolak eta Aretxabaletak ere izan zuten ordezkariak; bakoitzeko hiru antxintxikalarik amaitu zuten lasterketa. Azkenik, Josu Bideburu aramaiarra ere han izan zen, eta hiru ordu baino zertxobait gehiago behar izan zuen ibilbidea egiteko.

Horietatik guztietatik bi bakarrik izan emakumezkoak: Virginia Rubio antzuolarra eta Marifran Alonso arrasatearra.

BESTE GARAIPEN MOTA BAT

Bixente Pagaldai angiozartarrak maratoia 460. lekuan amaitu zuen; hala ere, txapelduna dela esan daiteke. Ez zuen lehen postua lortu, bere marka oso bestelakoa da: maratoia haren edizio guztietan parte hartu du berak eta, gainera, guztietan zapaldu du helmugako marra.

Duela hogeita sei urte, Donostiako lehenengo maratoia jokatu zenean han izan zen Bixente Pagaldai, eta domekakoa, oraingo azkena dena, ere korritu zuen. Beraz, hobetu ezineko marka dauka berak eta txapelduna dela esan daiteke.

Urtetan gora egin arren sasoi bete dagoela erakutsi zuen angiozartarrak; izan ere, aurreko urtean baino denbora laburragoa behar izan zuen maratoia egiteko. Orduan, 3:21:53ko denbora egin zuen; pasa den domekan, berriz, 3:08:05koa.

Korrika egiteko temperatura ona izan zen domekan. Hala ere, euria zen eta haizea zebilen, eta horrek zaildu egin zuen lasterketa. Baina, orokorrean, gustura aritu ziren antxintxikalariek, eta baita antolatzaileak ere. Orain, hurrengo urte arte itxaron behar.

Noche y Dia
Morfeoren besoetan

Atsedeen Etxea

Adriano VI, 17
GASTEIZ

Tel./Faxa: 945 21 42 24



Kirolabur



TXIRRINDULARITZA/ARETXABALETA

Muru-Alde elkarteak 50. urteurrena ospatzen dabil azken egunotan. Hori dela eta, Euskaltel-Euskadi txirrindulari taldeko kideak gonbidatu zituzten azaroaren 20an, osteguna, elkartera. Migel Madariaga eta Julian Gorospe Euskaltel-Euskadi taldeko arduradunekin batera Iban Mayo, Haimar Zubeldia, haren anaia Joseba, eta Dioni Galparsoro txirrindulariak egon ziren. Horiez gain, taldeko beste arduradun batzuk ere egon ziren, tartean, Athleticeko jokalaririk izandako Genar Andrinua.

Berrogeiren bat lagun batu ziren elkarteak, eta oso giro polita sortu zuten. Gorka Etxabe kazetariak aurkezle lanak egin zituen, eta batutakoek hainbat galdera egin zizkioten bai arduradunei, bai txirrindulariei. Mahai-ingurua bukatu zuteneko elkarteak kide den *Aramaixo*-k afari goxoa zeukan prestatuta guztiendako.

ESKALADA/ESKORIATZA

Josune Bereziartu eskalatzailerik bikaina Eskoriatzan izango da datorren egunean, abenduak 4. Ikus-entzunezkoa eskainiko du kultura etxean, arratsaldeko 19:00etan. Josunek bizi izan dituen abenturak bat ekarriko du Eskoriatzara eta diapositibak azalpenez lagunduko ditu.

Josune Bereziartu. Munduko eskalatzailerik onena. Bloketik Bulneseko Naranjora da ikus-entzunezkoaren izenburua. Eskalada eta mendia atsegin dituztenek hitzordua dute, beraz, datorren ostegunean Eskoriatzan. Axtroki kultura elkarteak antolatu du ekimen hau.

PILOTA/ARETXABALETA

Lagun arteko esku pilota txapelketa ugari ari dira jokatzeko azken asteetan ibarreko zenbait herritan. Aretxabaletakoan final-laurdenak jokatu dituzte jadanik eta asteburu honetan finalerdien txanda da.

A mailan, Arrasateko bi bikote, Bergarako bat eta aretxabaletar batek eta arrasatear batek osaturiko bikotea lehiatuko dira finaleko txartela eskuratzeko. B mailan, berriz, Aretxabaletako bi bikote eta Bergara eta Oñatiko bikote bana arituko dira. Maila bakoitzean garaile suertatzen diren bi bikoteek abenduaren 6an jokatu dute finala. Hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeke ere egun horretan izango dira partiduak.

FUTBOLA/DEBAGOIENA

Aretxabaletaren eta Bergararen arteko derbia izango da domekan, Ibarra futbol zelaietan, 16:30ean. GOITBk partidua eskainiko du domekan bertan, 19:30ean. Aretxabaletarrak sailkapeneko 18. tokian daude, 12 punturekin, eta mahoneroak 8. postuan daude, 17 punturekin.

Bestalde, Aloña Mendi taldeak Santo Tomas Lizeoa hartuko du domekan Azkoagainen, 15:30ean. Eta zapatuan, Mondragon taldeak Debako Amaikak Bat taldeari bisita egingo dio. Partidua 15:15ean hasiko da. Amaikak Bat taldea azken aurreko tokian dago sailkapenean eta, beraz, Mondrak aukera ona izan dezake hiru puntuak eskuratzeko. Arrasatearrak sailkapeneko bosgarren tokian dira, 19 punturekin.

MENDIA/BERGARA

Pol-Pol Mendizale Taldeak antolatutako azoka txikia zabalik izango da zapatua arte, azaroak 29. Azken urteotako ohiturari eutsiz, mendiko eta eskiko bigarren eskuko materiala jarri dute salgai. Gaur, egubakoitza, 19:00etatik 20:30era izango da zabalik eta bihar, zapatua, 18:00etatik 20:00etara. Esan bezala, material ugari prezio onean eskuratzeko aukera dago Pol-Polen.

Euskadiko Karate Txapelketa, Bergaran, domeka honetan

Bederatzi debagoiendarrek hartuko dute parte txapelketan

E.I.

Euskadiko Karate Txapelketa domeka honetan jokatu dute Bergarako Labegarietako kiroldegian. Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko taldeetako ordezkariak ere han izango dira, dominaren bat eskuratzeko eta Estatu mailako txapelketarako sailkatzeko itxaropenarekin.

Euskadi Karate Txapelketa jokatu da domeka honetan, hilak 30, Bergaran. Kadete eta junior mailako neska-mutilek hartuko dute parte txapelketan; euren artean bost bergarar, lau arrasatear eta oñatiar bat izango dira. Ibarreko karateka horiek Gipuzkoako Txapelketan eskuratu zuten Euskadikorako txartela. Labegarietako kiroldegian egingo dituzte lehiak, 10:30ean hasita. Guztira, ehun gaztek baino gehiagok hartuko dute parte.

Arrasateko Saioka Karate Taldeko Iban Galan, Goizeder Caballero, Jon Rodríguez eta Carlos Sánchezek kadete mailan arituko dira txapelketan. Jose Manuel



Domekan Bergaran lehiatuko dira karateka gazteak.

Petite taldeko zuzendari teknikoak azaldu du karateka horiek maila ona dutela eta gutxienez hiru domina arrasatera eramateko itxaropena duela. Bergarako Shotokan taldeko entrenatzaileak ere ongi ikusten ditu

Markel Larrañaga, Unai Zabarte, Miren Laskurain, Jon González eta Raquel Blanco bergararrak. Gainera, txapelketa Bergaran egitea "gauza handia dela" dio. Oñatiko Aloña Mendi taldeko Gorka Iglesias lehiatuko da.



ESTETIKA-ZENTRUA

LIRAIN

Bixente Ferrer 1 - ARRASATE
Tel.: 943 79 52 17

GABONETAKO ESKAINTZA

Lirain estetika zentroak ilusioa banatuko du Gabonetan.

Estetikan edo produktuetan gastatzen dituzun 30 euroko, zozketa erraldoi baten parte hartzeko aukera izango duzu:

Bi lagunendako asteburu bat Lierganesko bainuetxean!




Zozketa urtarrilaren 12an (astelehena) egingo dute, Lirain estetika zentroan izango den Ate Irekien Egunean. Arratsaldeko 6etan.

Zatoz luntxa dastatzera eta pasa ezazu asteburu bat Lierganesko bainuetxean DOAN!!!

Lierganesko bainuetxera bidaia agentzia honen eskutik:



www.halconviajes.com



Gabonetako ipuin bat
Postailuak

 **EROSKi**
Grupo Eroski Erosten Jakin

Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko azaroaren 28a

Kultura
eta
aisialdia



Azaroaren 28tik
abenduaren 5era



www.goiena.net | Debagoieneko ataria Interneten

Debagoieneko informazioa esku-eskura izango dugu laster, uneoro eguneratua eta zuzenean gure etxera ekarria, www.goiena.net Interneteko ataria abian jarriko du-eta Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak. Datoren martitzenean, abenduak 2, egingo dute aurkezpena, hain zuzen ere.

Baina www.goiena.net albiste atari bat baino askoz gehiago izango da; hain zuzen ere, ibarreko guztiondako topalekua izango da. Herritarrek albistek bidali, eztabaidetan iritzia eman eta kultura ekitaldion berri ere eman ahal izango dute webgunean. /14/LEIRE KORTABARRIA

Ezkerretik eskuinera,
Amaia Leibar, Iban
Arantzabal eta Usoa
Agirre, Goienako
Telematika sailekoak
eta Goiena.net-en
sortzaileak.

INTERNET/ 'GOIENA.NET' WEBGUNEAREN AURKEZPENA

Ibarreko Internet ataria, zabalik

MARTITZENEAN AURKEZTUKO DU GOIENA KOOPERATIBAK DEBAGOIENDAR GUZTION TOPAGUNE BIRTUALA: 'WWW.GOIENA.NET'

LEIRE KORTABARRIA

A benduaren 2an, martitzena, egingo da *goiena.net* Interneteko atariaren aurkezpena, Arteagan. Goiena kooperatibak abian jartzen duen atari berri honen bidez, debagoiendarrok informazioa inoiz baino azkarrago jaso ahal izango dugu, eta geu ere informazio emaile bihurtu.

Goiena.net webguneak eskaintzen digu debagoiendarroi informazioa jasotzeko modu berri bat: "Gertutasuna eta berehalakotasuna uztertuko ditu *goiena.net*-ek", diosku Iban Arantzabal webguneko editoreak. Hori posible da Interneten abantaila guztiak debagoiendarren mesedera ipintzen dituelako *goiena.net*-ek. Lehen ere, Debagoieneko herri gehienek bazituzten euren webguneak, baina orain, horien lekua hartu barik, haien eskaintza bildu eta borobiltzen duen ataria dugu *goiena.net*-en. Ekimen hau aitzindari izango da; izan ere, informazioan oinarritutako webgune asko badaude ere, eskualde bat bere osotasunean zerbitzatzen duten webguneen artean lehenengoetarikoa da *goiena.net*.

Atariaren jende aurreko aurkezpena abenduaren 2an izango da, Arteagan, Mondragoeko Uribarri auzoan. Goienako ardura denez gain, Eusko Ikaskuntzako, Mankomunitateko, Eusko Jaur-laritzako eta Foru Aldundiko ordezkariak ere egongo dira. Debagoiendar guztiak daude ekitaldira gonbidatuta.

HERRI BAKOITZAK, BERE SAILA

Atari horretan, herri bakoitzak bere sail propioa izango du, eta erabiltzaileak gunea pertsonalizatu ahal izango du, bere herria aukeratuz. Horrez gain, Debagoienak, ibar bezala, bere azpiartaria dauka *goiena.net*-en, eta ibar osoari dagozkion albiste eta



Goiena.net software eroso eta erabiltzerazean oinarritzen da; ibarra esku-eskura jartzen du.

Ateak zabalik talde eta gizabanakoei

I nformazio hartzailearen emailearen rola bananduta egon dira betidanik, baina *goiena.net*-ek, Interneteko baliabidea den aldetik, horien arteko muga ezabatzen du.

Izan ere, *goiena.net* posible egingo duen Goienako kazetari talde sendo baten lana izango da oinarria, baina edozein debagoiendarren parte hartzea ezinbestekoa izango da *goiena.net* baliabide dinamiko eta gertukoia izango bada. Erabiltzaileak eztabaidotan

erreportajeak irakurtzeko aukera izango dugu, gure herrikoetaz gain.

Bai herri bakoitzean, bai eta Debagoienerako atarian ere,

parte hartu, ekitaldien berri eman edo albisteak eurak ere proposa ditzake, eta webgunean dauden albisteei erantzun edo komentarioak gehitu. Horretarako, software oso erabilerraza du *goiena.net*-ek. Parte hartzearen bidez, arduradunek dioten moduan, "ateak zabaltzen zaizkie gazte taldeei, euskara elkartei, kultura mugimenduei, guraso elkartei, Udalei... eta, jakina, gizabanakoei ere".

albisteez gain, beste sail interesgarri batzuk ere egongo dira: adibidez, datozen ekitaldien agenda eta gaurkotasuneko gaiak eztabaidatzeko gunea. Biotan, erabiltzaileon parte hartzea oso garrantzitsua izango da, hitzorduak proposatuz zein eztabaidetan iritzia emanaz.

Erabiltzaileak bidalitako erantzuna bat-batean agertuko da webgunean, beste erabiltzaile batzuek eztabaidatu ahal dezaten. Honekin guztiarekin, ibarreko ondako topagune birtual izateko jaioko da *goiena.net*.

EUSKARA HUTSEAN

"Debagoienez ordenagailu kultura handia dago: gero eta jende gehiago dabil Internet erabiltzen ikasten; lanpostu asko ordenagailuaren aurrean egiten dira... eta uste dugu *goiena.net*-ek era-

bilera handia izango duela", diote Goienako telematika arduradunek.


Erabiltzailearendako erosotasun osoa eskaintzen du *goiena.net*-ek; izan ere, harpidedun egiteko aukera dago, doan, eta albisteak posta elektronikoz jaso daitezke. Horrez gain, softwarea erabiltzen oso erraza da, Interneteko erabiltzaile guztion esku. Code & Syntax arduratzen da atariaren alde teknikoaz.

Eta ez da ahaztu behar Interneteko abantailatz euskara hutsean gozatzeko aukera ere ematen digula *goiena.net* atariak. Modu horretara, Goiena komunikazio kooperatibak denetarikoko euskarazko informazio baliabideak jarriko ditu herritarron eskura: prentsa idatzizko medioez, irratiaz eta telebistaz gain, orain, Internet gune bat.



HOME PAGE

Sarbide nagusia da, *www.goiena.net* helbidean. Ibarreko izenburu nagusiak, ekitaldi agenda eta herri bakoitzeko izenburuak agertuko dira.



AGENDA

Egutegi bateko egun bakoitzean klik eginda ikusi ahal izango dugu ekitaldiaren berri, zehaztasun. Herritarrok ere hitzorduen berri eman dezakete.



EZTABAIDA

Gaurkotasun handiko gaiak proposatuko dizkie Goienak herritarrei, haiek iritzia eman dezaten. Parte hartzea irekia da.



DEBAGOIENA

Erabiltzaile bakoitzak bere udalaren inguruko informazioa jaso ahal izango du; izan ere, ibarreko udal webgune guztiak Goiena.net-en integratuta daude.

WHISKERIA arrasate – san andres auzoa

azaroak 30 DJ BALZA ... bergararik
abenduak 12 DJ AITZ arrasatetik
abenduak 14 DJ ASIER (intermusic)
..... meataka
..... donostiatik
abenduak 21 DJ TRAMPAS

DJ RESIDENT KAIET

MUSIKA/ OSKORRIK 'DESERTORE' DISKOA AURKEZTUKO DU GAUR BERGARAN

NATXO DE FELIPE, OSKORRI TALDEKOA

“Izugarrria izan da agertokian Oskorrik duen indar eta sonoritate berria ikustea”

LEIRE KORTABARRIA

Euskal folk musikako talde baterano eta esanguratsuenetariko bat dugu Oskorri. Gaur, egubakoitza, Bergarako pilotalekuan euren azken lana, *Desertore*, aurkeztuko dute. Han izango da, nola ez, Natxo de Felipe taldekide karismaduna.

Hainbeste urte eta hainbeste diskoren ondoren, Oskorrik demostratu du gai dela bere burua berriro asmatzeko...

Eboluzio baten barne aurrea egin nahi genuen. Gure lan egiteko modua nahiko lasaia da, artisaua, baina beti saiatzen gara gauza berriak aurkitzen, eta orain uste dugu zerbait berria kontatzea lortu dugula. Batez ere, taldeko hiru kide berriei esker lortu dugu berritasun hori: Iñigo Egia, Gorka Ezkauriaza eta Iker Goenaga.

Zer ekarpen egin du bakoi-tzak?

Hirurok taldearen sail erritmikoa osatzen dute; hori berrituta, Oskorriren eraikin musikal osoa zaharberritu egin da. Alde batetik, Oskorriren bagenekien alor erritmikoan ahul geundela, eta Iñigo Egia perkusio jotzaileak hori berritzen lagundu digu. Berak perkusio afrikarra, asiarra... jotzen du, eta beste estilo bat ekarri digu. Beste alde batek, Gorka Ezkauriazak baxu elektrikoa ekarri du taldera. Hirugarren kidea, Iker Goenaga trikitilaria, ibilia zen gurekin noiz

edo noiz, baina orain kide finko bezala dugu. Zuzenekoetan eta grabaketetan, bieran, sonoritate hobeia ekarri digu berak.

Bergarako kontzertuaren aurretik eskaini dituzue beste hainbat...

Desertore diskoko 13 abestiak jo ditugu joan den asteburuan egindako bost emanaldiotan. Izugarria izan da taldearen indar berria ikustea. Indarrean, perkusioan... asko irabazi du. Antzinarako kantuak ere beste modu batera jotzen eta entzuten dira.

Edukiari dagokionez, zein motatako abestiak daude *Desertore*-n?

Letrak idazteko, gu baino abila-goak diren lagun poeta eta bertolariongana jotzen dugu, eta orain, luxuzko taldea izan dugu. Adibidez, *Nire begi ninia* kantua oso sentibera da, eta Jon Sarasuarengana jotzea erabaki genuen; *Gerradantza bakerako* delakoa ideologikoagoa eta konprometitua zen, eta Andoni Egaña lan zoragarria egin digu; *Ilberriz* Hirugarren Munduko emakume baten istorioa zen, eta emakume bati, Maialen Lujanbiori, eskatu genion. Lan izugarria egin dute guztiek.

Eta orain, disko hori Debagoienean aurkeztea egokituko zaizue. Zelakoa da hemengo publikoa?

Publiko ederra da. Gipuzkoan, oro har, entzuleria hotzagoa da; baina Bizkaitik gertuago eta bizkaieraz berba egiten duten herriak beroagoak dira.



Natxo de Felipe musikaria.

Diskorik onenetakoa

Oskorriren azken etapako disko garrantzitsuena da, baita gure ibilbide osoko inportanteetariko bat ere; horrela hitz egiten du Natxo de Felipek *Desertore* euren disko berriaren gainean.

Oskorriren 25 kantu-urte 1997an egindako diskoa ezker argitaratu duten lanik kreatibo eta berritzaileenetariko bat da. Izenburuak dioen bezala, ihesaldi edo desertzio bat irudikatzen du taldearen betiko ibilbide-tik: “Desertatzea betebeharrak sentimental, ideologiko eta estetikoetatik ihes egitea da”, dio Oskorrik.

Aldaketa nagusia euren soinu molde indartsuagoek dakarte, baina, sentimendu eta ideia aldetik ere, ez dabil hankamotz *Desertore* diskoa. “Luxuzko istorio kontalaria”, De Feliperen hitzetan, izan dituzte oraingoan; tartean, Jon Sarasua aretxabaletarra, baita Harkaitz Cano, Unai Elorriaga, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña... ere. “Asmatu dugu zer kontatu aukeratzekoan, eta hori kontatzen lagunduko zigutenak ere aukeratzeko”, dio taldeak.


“Sail erritmikoan, batez ere, asko irabazi du Oskorrik hiru taldekide berrioi esker”

“Urte eta disko askoren ondoren ere, disko honekin lortu dugu zerbait berria kontatzea”



Pinu-izei frisoa. Bernizatua, 2,70 m frisogarria

10,95 €/m2 1.822 pta/m2 **ESKAINZA!**



Ateak eta zoruak saldu eta jartzen ditugu

Aroztegia orokorrean

Eskatu neurria egindako aurrekontuak

B BRICOCENTRO
Zure brikolaje denda

Uribarri auzoa B2 - S3 ARRASATE

ORDUTEGIA: 10:00 - 13:30 eta 16:00 - 20:00 Zapatu arratsaldeetan irekita.

Tel.: 943 71 20 69

MADINA
ZURAK AROZTEGIA

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea. ARRASATE

Tel.: 943 79 13 78

e-posta: mz@madinazurak.com

Orain,
Brico
Centroren
ondoan!

Aza. 28-Abe. 5

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

DEIAK

ANTZUOLA

► **Familia ardurakizuna** izeneko programa aurkeztuko du Isabel Bertau Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaileak datorren martitzenean, abenduak 2, herri ikastetxean, 18:00etan.

ARRASATE

► **Biteri Ikastetxe Nagusiko** ikasturte hasiera ekitaldia egongo da gaur, egubakoitza, Amaia Udal Aretoan, 19:00etan.
► **Zer da eta nora doa Euskal Herria? Zer da eta zer ez da euskal musika?** delako berbaldia egingo du Jose Ignazio Luzuriagak gaur, egubakoitza, Udaletxean, 19:00etan, Arrasate Musikalek antolatuta.

► **Gaztesarearen DVDaren** aurkezpena egingo dute gaur, egubakoitza, gaztetxean, 19:00etan.
► **Réquiem por un sueño** filmaren emanaldia egongo da etzi, domeka, gaztetxean, 18:30ean.
► **Gabonetako marrakiz lehiaketako** sari banaketa izango da hilaren 5ean, egubakoitza, Okendoko ludotekan, 17:00etan.

BERGARA

► **Guatemalaren inguruko sentsibilizazio-zikloa** antolatu du Mugen Gaietarako Kanpoko Erakundeak. Horren barne, honako ikus-entzuteko emanaldiak egongo dira: abenduaren 2an, martitzena, Mary Ellen Davis-en *Tierra Madre* delakoa; hilaren 3an, eguaztena, *Las quimeras del diablo* izeneko; eta 4an, eguena, *Ajayu* izeneko. Guztioak kultura etxean izango dira, 19:00etan.
► **Bergara, historia topagunea** zikloaren barneko hitzaldia egongo da datorren martitzenean, abenduak 2, Migel Altuna institutuan, 19:30ean. Sarrera doan izango da.
► **Euskaraz egiten diren hutsak egunotan, eta esamoldeak** delako hitzaldia egingo du Gotzon Garate idazle eta hizkuntzalariak abenduaren 4an, eguena, kultura etxean, 19:00etan.

DEBAGOIENA

► **Astronomia taldeak** bere bigarren bilera izango du gaur, egubakoitza, Oñatiko kultura etxean, 19:30ean.

ESKORIATZA

► **Gabonetako parkerako begiraleak** behar ditu Udalak. Interesa dutenek abenduaren 10ean aurkeztu beharko dute curriculum, kultura etxean. 18 urte izan beharko dituzte gutxienez, eta euskara, ahoz zein idatziz, menperatu.
► **Josune Bereziartu, munduko eskalatzaile onena: Bloketik Bulnesko Naranjora** izeneko ikus-entzuteko saioa egongo da datorren eguenean, abenduak 4, kultura etxean, 19:00etan, Axtrokiren eskutik.

MUSIKA

ANTZUOLA

► **Berto musikatu emanaldia** egingo dute Arantxa Cruzek, Joseba Ramirezek eta Xabier Zabalak etzi, domeka, Olaranen, 18:30ean.

ARETXABAETA

► **Sergei Osokin** errusiar akordeoilariaren emanaldia egongo da abenduaren 5ean, egubakoitza, parrokan, 20:00etan.

ARRASATE

► **Eraso! eta beste talde baten emanaldia** egongo da bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

BERGARA

► **Tijuana in Blue eta Silencio Absoluta** taldeek joko dute gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan.
► **Oskorri taldeak** bere disko berria, *Desertore*, aurkeztuko du gaur, egubakoitza, udal pilotalekuan, 22:30ean. Sarrerak honako lekuetan daude salgai: kultura etxean, Lazkano oinetako dendan eta Etxepare-Bilintx liburu eta disko dendan.
► **Cujo eta Zodiacs** taldeen emanaldia egongo da gaur,

egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

► **Gabero abesbatzaren emanaldia** egongo da bihar, zapatua, Zabalotegi aretoan, 19:30ean. Sarrerak bi eurotan salduko dira.

► **Danko Jones eta Electric Eel Shock** taldeen emanaldia egongo da bihar, zapatua, Jam aretoan, 22:00etan.

► **Juanma eta DJ Balza** disko jartzaileen emanaldia egongo da bihar, zapatua, Go-Jam aretoan, 02:00etan.

► **Saxon eta Doro** taldeek kontzertua eskainiko dute etzi, domeka, Jam aretoan, 20:00etan.

► **Ojos de brujo, Ttukunak eta DJ Floro** musikarien emanaldia egongo da hilaren 5ean, Jam aretoan, 22:00etan.

ERAKUSKETAK

ANTZUOLA

► **Kongon izan diren herritarrek** han ateratako argazkien erakusketa egongo da bihar, etzi eta datorren asteburuan (abenduak 6 eta 7), Olaran etxean, zapatuan 18:30-20:00 eta domekan 12:00-14:00 eta 18:30-20:00.

ARRASATE

► **Arrasateko Tailaginen Elkarteak (ARTE)** bazkideon 127 lanen erakusketa izango du zabalik Iturriotz kaleko Harresi aretoan abenduaren 3ra arte.

BERGARA

► **Amnesty International** taldearen *Giza eskubideak, emakumezkoen eskubideak* erakusketa egongo da zabalik azaroaren 30era arte, kultura etxean.

ESKORIATZA

► **Euskarazko jostailu eta baliabide erakusketa praktikoa** egongo da gaurtik etzira bitartean, kultura etxean, honako ordutegian: egunero, 18:30-20:30, eta domekan, gainera, 13:00-14:00.

LEHIAKETAK

ESKORIATZA

► **Gabonak marrazkitan** lehiaketa dago abian, Eskoriatzan edo Gatzagan bizi diren 3-12 urte arteko neska

mutikoendako. Lagun bakoitzak marrazki bana aurkeztu ahal izango du. Entregatu lanok kultura etxean edo udaletxean, abenduaren 4a baino lehen.

EUSKAL HERRIA

► **Amodiozko Gutunen XII. Berrigara Lehiaketa** abian dago. 1989an edo lehenago jaiotako edozeinek har dezake parte. Jatorrizko lana eta hiru kopia bidali beharko dituzue honako helbidera: Jardun Elkarte, 103 PK; 20570 Bergara; edo kulturajardun@topagunea.com helbidera.

ANTZERKIA

ARRASATE

► **Ikutuz ikutu** gazteei zuzendutako antzezlan eskainiko du Pikor taldeak datorren eguaztenean, abenduak 3, gaztetxean, 18:00etan.

ESKORIATZA

► **Jose Campanari** ipuin kontalari

► ANTZERKIA


UMEENDAKO ANTZEZLANAK EGONGO DIRA HAINBAT HERRITAN

Arrasaten, Bergaran eta Eskoriatzan ume eta gaztetxoek zuzendutako hainbat antzezlan egongo dira datozen egunotan. Bihar, zapatua, *Galtzerdia* lana eskainiko du Taun Taun taldeak, Arrasaten. Bihar ere, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek ikuskizun berria ikusteko aukera egongo da Eskoriatzan. Eta horrez gain, datorren egubakoitzean, abenduak 5, beste antzezlan batez gozatzeko aukera izango dute debagoiendar gazteek, Bergarako Zabalotegi aretoan: *De profesión, princesa*, Oihulari Klown eta Trokolo taldeen eskutik.

Non: Amaia Udal Antzokian, Arrasaten.

Noiz: bihar, azaroak 29, zapatua.

Ordua: 17:00etan.



JOSUNE BEREZIARTU
Munduko eskalatzaile onena. Bloketik Bulneseko Naranjora ikus-entzunezkoa.

Abenduak 4, osteguna, 19:00etan Eskoriatzako Kultur Etxean. SARRERA DOAN



Carrión música, s.a.

- Gitarrak, baxuak, amplifikadoreak, teklatuak, soinu ekipamenduak.
- Pianoak eta trikitixak errentan hartzeko aukera, eta erosteko.


Manuel Iradier 20 / Dato 42
Tel.: 945 23 07 49
GASTEIZ

AIPAGARRI

Gerardo Markuleta

OÑATI

Gerardo Markuleta bere laugarren poema-liburua argitaratu du. *Batak ez du bestea kentzen* da liburuaren izenburua eta azaroaren 20an aurkeztu zuten. Beste liburuak baino sendoago eta luzeagoa da oraingoa. Durangoko azokan salgai izango da, Alberdania argitaletxearen standean.



Enaitz Alustiza

BERGARA

Bagare Bertsolari Gazteen Sariketako finalera iritsi da Enaitz Alustiza. Guztira, hogeit bertsolarik hartu dute parte kanporaketetan, eta sei sailkatu dira abenduaren 4an, eguena, Gasteizen jokatu den finalerako. Euskadiko Kutxak Dato kalean duen egoitzan izango da finala, 20:00etan.



Iñigo Ibarro

OÑATI


Iñigo Ibarro Sharon Stonner musika taldeko partaidea da. Talde oñatiar hori Euskadi Gazteak antolatzen duen Maketa Lehiaketako hogeit finalistetako bat izan da. Ez du saririk jaso, baina beren burua ezagutarazteko balio izan die lehiaketak. Beren ibilbidean beste aurrerapauso bat izan da hau.



Martin Aria Maiztegi
Oñati • Azaroaren 17a • 3,165 Kg. Gurasoak: **Fernando Aria** (Oñati) eta **Miren Maiztegi** (Oñati). Argazkian, jai berria amaren besoetan.



Xabier Anduaga Txintxurreta
Oñati • Azaroaren 18a • 3,300 Kg. Gurasoak: **Rafa Anduaga** (Oñati) eta **Irati Txintxurreta** (Oñati). Argazkian, umea aita eta amarekin.




Lorea Ramudo Novellan
Bergara • Azaroaren 19a • 3,800 Kg. Gurasoak: **Jose Miguel Ramudo** (Bergara) eta **Virginia Movellan** (Elgoibar). Argazkian, umea familiarekin.



Unai Laskurain Lauzirika
Bergara • Azaroaren 19a • 4,300 Kg. Gurasoak: **Alberto Laskurain** (Bergara) eta **Beatriz Lauzirika** (Eibar). Argazkian, jai berria amren besoetan.



Xabat Otxandiano Jausoro
Arrasate • Azaroaren 22a • 3,220 Kg. Gurasoak: **Xabier Otxandiano** (Arrasate) eta **Goizane Jausoro** (Arrasate). Argazkian, umea amarekin batera.




Eider Portalo Mellado
Arrasate • Azaroaren 24a • 2,870 Kg. Gurasoak: **Agustin Portalo** (Arrasate) eta **Matilde Mellado** (Arrasate). Argazkian, jai berria gurasoekin.



Félix Gonzalez eta Pilar Berroia arrasatearrek gaur, azaroak 28, berrogeita hamar urte bete dituzte ezkontuta. Familia artean ospatuko dituzte urrezko ezteiak. Familia osoaren partetik, zorionak, bihotz-bihotzez, eta urte askotarako, bikote!



Juanita Atela eta Jose Larrabe aretxabaletarrek urrezko ezteiak bete zituzten azaroaren 21ean. Aurreko asteburuan ospatu zuten 50. urteurrena, familia artean meza eta bazkaria eginda. Orain, bidaiatxo bat egingo dute. Zorionak, etxekoan partetik!



Garbiñe eta Segundo arrasatearrek 25 urte beteko dituzte ezkontuta datorren astelehenean. 1978ko abenduaren 1ean ezkontu ziren. Urteurrena familiarekin ospatuko du bikoteak. Zorionak, familia guztiaren partetik, eta ondo-ondo pasa ospakizunetan!

HILDAKOAK

- Luis Arregi Dorronsoro.** Arrasaten, azaroaren 20an. 77 urte.
- Juana Lezeta Ugalde.** Eskoriatzan, azaroaren 20an. 78 urte.
- Soledad Kortabarría Unzueta.** Arrasaten, azaroaren 20an. 84 urte.
- Juan Maria Aizpurua Agirre.** Bergaran, azaroaren 22an. 43 urte.
- Francisco Javier Zubizarreta Arenaza.** Oñatin, azar. 22an. 53 urte.
- Txaro Villa Unanue.** Bergaran, azaroaren 26an. 61 urte.
- Luis Iglesias Fernández.** Bergaran, azaroaren 26an. 77 urte.

ESKER ONA

Joseba Arabaolaza Ezkibel

Arrasaten hil zen, 2003ko azaroaren 24an, 71 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Ramon Azpeitia Etxeberria

Bergaran hil zen 2003ko azaroaren 18an, 80 urte zituela.




Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Juan Maria Villar Beloki

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 30ean, 11:30ean, **Arrasateko Uribarriko elizan.**




Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Juan Mari Aizpurua Agirre


Gasteizen hil zen 2003ko azaroaren 22an, 43 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

GOIENKARIA

Astero 21.500 etxetan. Eskelen prezioa: 75 €.



BIZI-POZA/AZAROA

EHORZKETAK

Ehorzketa merkeenak ere garestiak dira; batez beste 1.500 euro balio dute, orain dela bost urte baino %54 gehiago

Gertuko norbait hiltzen denean ehorztetxeek eskaintzen duten zerbitzua lagungarria izaten da, baina baita garestia ere. *Consumer* aldizkariak Estatu mailan egindako ikerketa batek erakutsi du hileta merkeenak batez beste ia 1.500 euroko kostua daukala. Azken bost urteotan %54 igo da prezio hori; Kontsumo Prezioen Indizea, aldiz %17 bakarrik igo da. Ikerketa horren arabera Estatu hiririk garestiena Madril da; merkeena, berriz, Bartzelona. Dena den, hirien eta probintzien barnean ere prezioen arteko aldea nabaria da, 500 euro baino gehiagokoa. Hortaz, ongi aukeratuz gero, dirua aurrez liteke.



OSASUNA

Ez da komeni gripearen aurkako botikak nork bere kabuz hartzerik

Aurtengo neguan Estatuako lau milioi lagunek gripea izango dute. Horietako askok beren kabuz sendagaiak hartuko dituztela pentsatzen du Osasun Ministerioak. Jokiera hori ez da egokiena, beste zenbait gaixotasunek gripearen sintoma antzekoak baitituzte. Gaixotasuna birus batek eragindakoa bada, ez da gomendagarria antibiotikoak hartzea; bakteriak sortutakoa bada, aldiz, bai. Gainera, botikak nork bere kabuz hartuz gero arazoak sor daitezke. Horregatik, sendagaiak hartu aurretik medikurengana joatea gomendatzen du Osasun Ministerioak.

TRANSGENIKOAK

Produktu transgenikoen etiketan argi azaldu beharko da transgenikoak direla

Europako Batasunak erabaki du genetikoki aldaturiko produktuen etiketan hori adierazi egin beharko dela. Produktu baten genetikoki aldaturiko organismoen kopurua 0,9 baino altuagoa bada, etiketan jarri beharko da datu hori. Orain arte produktu hauek bazeuden, baina, aurreantzean, arau zorrotzagoak ezarriko zaizkie. Dena den, neurri honekin arazoa ez da guztiz konponduko, labore arruntak kutsatu egin baitaitezke inguruan produktu transgenikoak izanez gero. Haizeak polena batetik bestera eramanean gerta daiteke kutsadura.

OSASUNA

Oinetan izaten diren arazoaren %50 oinetakoek eragiten dituzte

Oinek gure pisu guztia eusten dute egun osoan, baina ez ditugu batere zaintzen. Kailuak, juanikoteak eta oin lauak oinetan sortzen diren arazoetako batzuk besterik ez da. Horietako erdiak oinetako txarrak erabiltzeak eragiten ditu. Beraz, oso garrantzitsua da oinetako egokiak erabiltzea. Horiek oinari ondo eutsi behar diote, baina estutu gabe; ez dute sintetikoak izan behar; eta takoei lau edo bost zentimetro baino txikiagoak izan behar dute.

Eroski Taldea Fundazioaren laguntzarekin

Gazte-txartelaren informazioa

Abenduko zubia Gazte-txartelarekin

Gazteendako sekulako abantaila eta deskontuak

Abenduko zubia gain-gainean dugu eta gazte abenturazaleak planak egiten hasi dira. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak bultzatu eta Euskadiko Kutxak 15etik 26 urte bitarteko gazteen eskura jartzen duen Gazte-txartelak laguntza paregabea eskainiko die. Hiriburuak ezagutzea, Euroatik zehar bidaiatzea, eskiatzea... Egindako aukera edozein izanda ere, Gazte-txartelak milaka deskontu eskaintzen ditu.

ABENDUKO ZUBIAN NORA?

Plana egiterako orduan, bidaiaria agentziek sekulako eskaintzak izaten dituzte. Hala ere, abenduko zubian ohi baino garestiagoak dira bidaiak. Horregatik, gazteek laguntza apur bat behar izaten dute, eta laguntza hori Gazte-txartelak emango die. Euskadiko Kutxak gazteen eskura jartzen duen txartel horri esker, zubian edonora joateko aukera izango dute. Gazte-txartelaren jabeek, adibidez, garraio-

bide gehienetan sekulako abantailak izango dituzte. Trenean, autobusean edo barkuan bidaiatzerakoan, %10etik %25era bitarteko deskontuak izango dituzte. Bestalde, auto bat hartu eta gura duzuen tokira mugitzeko, Gazte-txartelak auto-alokairutan ere deskontuak eskaintzen ditu. Horri, gainera, ostatuetako egonaldiak gehituz gero, bidaiaria merke-merke izango da. Gazte-txartelarekin, Madrilgo eta Kataluniako gazte aterpetxeetan izango dituzue, besteak beste, deskontuak.

BIDAIA-ASEGURUA

Aukeratutako lekua edozein izanda ere, konpante hartu beharreko beste zerbitzu bidaiaria-asegurua da. Gazte-txartelak mundu osoan erantzun dizun Europ Assistance bidaiaria-asegurua eskaintzen dizu. Medikugastuak, istripuen ondorioz gerta daitezkeen gastuak, ekipaje galerak... Gazte-txartelarekin lasai egon zaitezke.

LABETIK ATERA BERRIAK

Hau guztia irakurri ostean oraindik zubia nola aprobetxatu ez badakizu, hona hemen www.gazteukera.net helbidean aurkituko dituzuen eskaintza bi: abenduaren 5etik 8ra bitartean Bilbotik Parisera bidaiaria 503,50 euroren truke. Eta Terra Mitica bisitatzeke sarrearak %75 merkeago!

Bestalde, gogoratu azaroaren 22an ireki zutela eski denboraldia, eta aurrean, Gazte-txartela duten gazteek sekulako baino merkeago ibil daitezkeela eskiatzen. Izan ere, Euskadiko Kutxak Candanchun, Formigalen eta Astunen eskiatzeko forfaitak 5 euro merkeago banatuko ditu Gazte-txartelarekin. Horiek eskuratzeke deitu 901 200 000 zenbakira.

Ez galdu aukera, atera gazte txartela eta egin abenduko zubirako planak!




Gazte-txartelarekin, guztiok eskiatzera!



Eraman ezazu Gazte-txartela alde guztietara, eta gozatu eskaintzen dizkizun abantaila guztiez.

Eskatu ezazu Euskadiko Kutxan

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



HITZGEZIDUNAK

Luma

	Lotsati	▼	Ukimen	▼	* Izena
	Goi-mailako		Letra izena		
	▶		▼		▼
	▶	... egin, garaitu			
		Lehoiaren oihu ozen			
Legenarrak jota	▼	* Deitura	▼	Area	▶
Lurpeko trena		Erretzen den landare		Kanpora	
▶				Utik !	▶
				Aukera	▼
Mingots	▶				
Bilgor					
▶			Pare bat	▶	Oihu eginez
			Manganesoa		
Sodioa	▶		Kako	▶	
Jakite-gai			Sendotasun		
▶					
Edari alkoholio	▶		Unnilhexioa	▶	
400			Oinarritzko edari		
▶		Jabetasun atzizkia	▼	Azken bokala	▶
		Dago		Aluminioa	
Madariak	▶				▼
Argi-izpi					
▶			Gabarra, ibai-ontzia	▶	

BILABILATZ



UMOREGIROAN / Pedro Zelaia

Pedro Zelaia argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

ERREKADISTA FIÑA
Plaentxiako Urlixak torloju pilla bat biar zebazen. Prixako biarra zan. Kosta ta abar agindu zetsen andik iru egunera egongo zirala. Etorri da irugarren eguna, eta lenengo orduan bialdu dau errekadistia.

Ugezabak esaezta emoteko torlojuak. Eta, fabrikatian aserre:

- Zer uste jok orrek, txarri arraixu orrek, txurruak dirala ala? Ganorabako txotxolua dok ori! Esaixok arratsaldian egongo dirala.

Bueltan, errekadistiak eta esatetsa ugazabari:

- Esezta eiñ barik doiazela.

- Eiñ barik doiazela?
- Bai, eta geixao be esaezta: txarri bat zarala, txotxolo ganorabako bat.

- E! Ori esan dotso?
Irakitzen, artu dau telefonua eta deitxu detsa torlojuñari:

- Zer ganora dok ori! Noizko egongo ditzuk torlojuak? Gaiñera ik esan dok txarri bat eta txotxolo bat naizela!

- Nork esan deuk?

- Errekadistiak.
- Joño! Errekadista fiña daukuk benetan!

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola



Zer egiten zaie Debagoieneko etxeetako zaborrei?


Gipuzkoako Diputazioak egina du hondakinak tratatzeko 2016ra arteko planaren zirriborroa. Gaiaren inguruan bada polemikarik, batez ere, egingo liratekeen errausketa planten kopuruaren inguruan. Edozein modutan, gaurko galdera guregandik hurbilekoagoa den kontu batekin lotuta dago. Hauxe da: zer egiten zaie Debagoieneko zaborrei gaur egun?

- Kanpanzarrera bidean, Akein dagoen zabor-labeen erretzen dira.
- Epeleko zabortegira eramaten dira.
- Zumarragan dagoen Zaborralde izeneko zabortegira eramaten dira.
- Beasainen dagoen Sasieta izeneko zabortegira eramaten dira.

tan Sasietara.

Erantzun zuzena: Hasieran Akeira eramaten dira eta gero kamiole-

SOLUZIOAK



A	V	A	R	N	I
L	•	R	•	A	•
K	A	E	R	D	U
U	•	N	U	D	•
H	N	U	•	N	O
I	A	I	G	N	I
O	K	A	•	N	•
•	I	B	•	O	S
Z	•	A	R	R	G
T	U	•	O	R	•
A	•	A	S	O	•
L	I	X	•	•	•
O	K	I	O	G	•
•	U	•	L	•	•

ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES
martxoak 21-apirilak 21

Familiarteko arazoak izango dituzu; izan ere, oso burugorria zara. Edozelan ere, arazoak berba eginez konpontuko dituzu. Bestalde, ez da unerik egokiena erabakiak hartzeko.

TAURUS
apirilak 22-maiatzak 21

Arazoak izango dituzu bikotekidearekin; izan ere, haren akatsak bakarrik ikusten dituzu. Horren ondorioz, elkarrengandik aldentu egingo zarete. Bikotekiderik ez dutenek, berriz, ez dute gura izango inolako harremanik hasi.

GEMINI
maiatzak 22-ekainak 21

Aldaketak gertatuko dira lanean, eta onuragarriak, gainera. Bestalde, ahalgin zaitzez agiri guztiak zuzen izaten, Haziendak ikuskaritza egin diezazuke-eta.

CANCER
ekainak 22-uztailak 22

Aparteko diru sarrerak izan ditzakezu, zorizko jokoei esker. Bestalde, sexu-erakarpian handia izango duzu, eta neska/mutil bat baino gehiago zure atzetik ibiliko da; hautatu egin beharko duzu hainbat artean.

LEO
uztailak 23-abuztuak 22

Hausnartzeko garaia duzu; izan ere, zure bizitzan erabateko aldaketa egin gura duzu: aita/ama izan gura duzu! Hori dela eta, eguneroko eginbeharretan hainbat aldaketa egin beharko dituzu.

VIRGO
abuztuak 23-irailak 22

Oso une egokia lagunekin aspaldiko gaizkiulertuak konpontzeko, ohi baino diplomatikoago eta irekiago egongo zara-eta.

LIBRA
irailak 23-urriak 22

Anai-arrebek arazo bat baino gehiago eragingo dizute, ez dagozkizun hainbat ardura zure gain utziko dituzte-eta. Bestalde, dirua ondo administrazio ezazu.

SCORPIUS
urriak 23-azaroak 22

Aspertu egiten zara bikotekidearekin; hori dela eta, estimulu berrien bila abiatuko zara. Epe laburrera estimulatzailea izango da, baina gerora kalte egin diezazuke.

SAGITTARIUS
azaroak 23-abenduak 21

Esku artean dituzun proiektuak atzeratu egingo dira, hainbat xehetasun direla-eta, batez ere diru kontuei dagokienez. Bestalde, arazoak izango dituzu seme-alabekin, haiek autoritarismoz jokatzeko gura-eta.

CAPRICORNUS
abenduak 22-urtarrilak 20

Lanari dagokionez, hainbat eskaintza on egingo dizkizute. Eta amodioari dagokionez, bikotekidea duzenok sendotu egingo duzue harremana eta ez duzenok oso pertsona atsegina ezagutuko duzue.

AQUARIUS
urtarrilak 21-otsailak 20

Lanerako zenituen planak ez dira irtegarriak izango zuk gura zenuen moduan. Horren eraginez, ingurukoekin hotz eta zakar jokatu-ko duzu.


PISCIS
otsailak 21-martxoak 20

Bidairen bat egitea pentsatuta bazenuen, atzera ezazu, ez da-eta unerik egokiena horretarako. Bestalde, jendearekin erraz haserretzeko joera izango duzu; izan ere, entzun gura ez duzun egia osoa esango dizute ingurukoek.






Soinuz blai
EGUBAKOITZA 28 / 21:15



Harmailatik
ASTELEHENA 1 / 20:30



Goienan, herriz herri
MARTITZENA 2 / 20:30



Txintxaun
EGUAZTENA 3 / 20:30

80 eta 90eko hamarkadetako bideoklip onenak

Laurogeiko eta 90eko hamarkadetako bideoklip onenak ikusteko aukera izango da gaurko programan. Maite Albes gazte arrasatearrak aurkeztuko du saioa eta garai haietan hain ezagunak ziren kantuak ekarriko ditu.

Asteburuko emaitzen analisia eta tertulia

Harmailatik programak telefonoa zabalik izango du hemendik aurrera. Asteburuko emaitzak aztertuko dituzte eta tertulian telefonoa zabalduko dute programa hasieran egingo den galderari nahi duenak erantzun diezaion.

Nolako ikusten duzu Aretxabaleta herria?

Galdera honi erantzuten saiatuko da Alberto Gorritiberea. Baina ez da bakarrik egongo. Ondoa izango du Arritxu Oriden Aretxabaletako alkatea. Herritarren kezak eta eskaerak ere jasoko dira, baita telefonoz ere.

Azaroko irabazleak nortzuk diren jakingo da gaur

Aurreko hiru asteotan puntu gehien lortu dituzten taldeak ariko dira lehian. Jokoan, Erein argitaletxearen liburu sorta, *Ipurbeltz*-eko harpidetza eta finalerako txartela. Hori lortzeko, ordea, galderak eta probak gainditu behar.

TELEBERRIAK

Etorkinei buruzko erreportajeak, ETBko albistegietan

Euskal Herrian bizi diren Europako Batasunetik kanpoko etorkinei buruzko erreportaje sorta egin du ETB kateak. Horiek *Gaur egun* eta *Teleberri* saioen barnean eskaintzen hasi ziren pasa den astean eta aste honetan zehar ere emango dituzte. Guztira hamar erreportaje egin ditu ETBk. Dokumentu horiek etorkinen kezka eta nahiak erakusten dituzte, eta hemen aurkitu dituzten bizi baldintzak azaldu.

'Hau komeria' saioa saritu dute Azpeitiko Antzerki Topaketan

Antzerkia, dantza eta musika uztartzen dituen ETBren *Hau komeria* saioa saritu zuten Azpeitiko Antzerki Topaketan. Aktorearen Eguna ospatu zuten Azpeitian aurreko zapatuan, hilak 22, eta han eman zioten saria Idoia Agirrek aurkeztu duen saioari. Arte eszenikoak bultzatu eta zabaltzen dituelako goraiatu zuten *Hau komeria*.

'Olentzero Begigorri' saioa grabatuko dute abenduaren 6an

Abenduaren 25ean ETB1en emango duten *Olentzero Begigorri* saioa abenduaren 6an, zapatua, grabatuko dute Kursalean. Ikusle gisa joateko aukera dago. Horretarako ondorengo telefono zenbakira deitu behar da: 943 01 16 00. Ekitaldian, besteak beste, Kepa Junkerak eta Edu Muruamendiarrak bergararrak hartuko dute parte, eta Joxe Mari Iriondori omenaldia egingo diote.

ASTEKO PROGRAMAZIOA / Azaroaren 28tik abenduaren 4ra

EGUBAKOITZA 28	ZAPATUA 29	DOMEKA 30	ASTELEHENA 1	MARTITZENA 2	EGUAZTENA 3	EGUENA 4
13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Sarrera doan 14:30 Berriak 15:00 Iluntzean 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Astebete 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Astebete 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Mandio: San Juan jaiak Arrasaten 15:30 Lanabesak 16:00 Sarrera doan 16:30 Iluntzean: Juan Mari Irigoien 17:00 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Mandio: San Juan jaiak Arrasaten 15:30 Lanabesak 16:00 Sarrera doan 16:30 Iluntzean: Juan Mari Irigoien 17:00 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Astebete 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Harmailatik 21:00 Gaurkoak 21:15 Harmailatik tertulia 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Harmailatik 23:00 Gaurkoak 23:15 Harmailatik tertulia 23:45 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Harmailatik 14:30 Berriak 15:00 Harmailatik tertulia 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Goienan, herriz herri 21:00 Gaurkoak 21:15 Goienan, herriz herri 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Txintxaun 23:00 Berriak 23:15 Goienan, herriz herri 23:00 Gaurkoak 23:15 Goienan, herriz herri 23:45 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Goienan, herriz herri 14:30 Berriak 15:00 Goienan, herriz herri 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Txintxaun 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Txintxaun 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Txintxaun 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera 19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Sarrera doan 21:00 Gaurkoak 21:15 Iluntzean 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Sarrera doan 23:00 Gaurkoak 23:15 Iluntzean 23:45 Emisio amaiera
20:30 Astebete			21:15 Harmailatik tertulia	20:30 Goienan, herriz herri	20:30 Txintxaun	21:15 Iluntzean

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefonoa: 943 71 23 95

KAMERAURREAN



"Arrasaten 0-3 urte bitarteko haurrendako eskola behar dela ikusten dugu. Eta herriak ere eskatzen du haur hauek hezkuntza eskola publikoan sartzea"

Agurtzane Barrutia / Eskola Publikoa BERRIAK (2003/10/24)



"Tratu txarrak jasotzen dituen emakumeak epailearen aurrean egin behar du salaketa, baina guztioi dagokigu gizartearen aurrean salatzea"

Maite Barreña / Berdintasunerako teknikaria BERRIAK (2003/10/25)

TELEBEGI / Maria Agirre

Aitortzeaz lotsatzen gara!

Datu batek zer pentsatua eman dit. Aste honetan kaleratutako inkesta baten arabera, herritarren %12k aitortzen dute bihotzeko saioak ikusten dituela.


Inkesta estatuan egindakoa denez, berehala honako galdera etorri zait burura: zeintzuk ari dira gezurretan, audientzia kopuruak ala ikusleak? Nik ez dut inongo dudarik, ikusleak gezurretan ari dira, bestela aspaldi kenduta zituzten halako saioak telebistatik. Are gehiago, inkestaren arabera, gehiago ikusten dira dokumentalak bihotzeko saioak baino. Berrito diot, sinesgaitza, CIS etxeak egindako inkestari sinesgarritasun osoa eman gabe ere.

Bihotzeko saioak ikusten ditugula aitortzeaz lotsatu egiten gara. Hori da nik behintzat inkestatik atera dudana ondorioa. Bestela zer dela eta ezagutzen ditugu Dinio, Sarita eta antzeko guztiak?



CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

Talde osoa emakumearen eskura



Jaioaurreko diagnostikoa-ekografia.....	Antonio Estomba
Menopausia	Fernando Cristóbal
Endoskopia ginekologikoa	Alfredo Otorra
Laguntza bidezko ugalketa.....	Jose M. Gómez
	Ainhoa Larrea
Titietako gaixotasunak	Domingo Murgiondo
Obstetrizia.....	Miguel Gabarain
Psikosexualitatea.....	Maria José Ruiz
Nerabegaroko ginekologia.....	Fatima Azkue
Hezur dentsitometria	J. Rodríguez

Arrasateko kontsultategia:
Zerkaosteta 17, behea
Tel.: 943 79 20 18



Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88

laster

Debagoiena esku-eskura

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

zure herriko albisteak sarean • eztabaidak • agenda • ...

Atzeskua

LEIRE KORTABARRIA

Edorta Aiastui/ Tronpeta jotzailea

Zer dela eta aukeratu zenuen tronpeta eta ez beste musika tresna bat?

Biolontxelo gustatzen zitzaidan, baina tronpeta jotzaile gehiago behar zen, eta irakasleek belarri ona nuela esaten zuten; hortaz, azkenean, tronpeta ikasteari ekin nion. 10 urte nituen. Orain, tronpeta ez ezik, fliskorno izeneko beste antzerako tresna bat ere jotzen dut.

Bizilagunak ez zenuen pozik asko izango...

Ama kexatzen zitzaidan gehien! Beti esaten dit

lehen, ikasten ari nintzenean, etxean jotzen nuela eta gogaitu egiten nuela; eta orain, ondo jotzen dudanean, eskolan bakarrik jotzen dudala.

Oporretan joaten nintzenean, hondartza bakartiren batera joaten nintzen jotzera...

Ikasleren bat ere izan dut, Ertzaintzak dezibelio maila kontrolatzen ziona.

Musikan denetarikoa notak jotzen dituzu...

Bai. Hasi, orkestrako kide hasi nintzen; hain zuzen ere, orkestran, bandan... parte hartzea zen nire ametsa.

Gero, Arrasate Musikaleko

banda sortu zenean, 1994an, han ere parte hartzen hasi nintzen. Tronpeta ez ezik, fliskorno delako tresna bat ere jotzen dut. Bestalde, Arrasate Musikalen irakasle naiz, eta Big Band taldeko kide ere bai, orain dela hiru urtetik hona.

Aspertzeko astirik ez duzula, hortaz...

Lana da, bai. Adibidez, orain, orkestrakook, abendu bezala, zarzuela prestatzen ari gara. Eskerrak emandaldi eta entseguak egun desberdinetan diren! Hala ere, askotariko estiloak jorratzeko aukera dut. Adibidez, Big Band taldean jazz lantzen dugu.

Hasieran, tronpeta jotzaile eskasia zegoen. Eta orain?

Gauzak asko aldatu dira. Lau ikaslerekin hasi nintzen; orain, ordea, 24 ditut, eta leku mugatuak ez bagenitu, gehiago izango nituzke. Ikasleok zaletasun han-

dia dute tronpeta eta fliskornoarekiko. Gure helburua da ahalik eta jende gehien bandarako, orkestrarako... prestatzea. Gaur egun, bandan dagoen musikari gazteenak 10 urte ditu.

Santa Zezilia eguneko zuen saioa herritar askok jarraitu zuen, beti bezala.

Arrasaten bandarekiko zaletasun oso handia dago. Gure bandak emanaldi finko batzuk ditu urtean zehar: Santa Zezilia egunean, San Juan jaietan... Eta jende asko etortzen da, bai. Kalejiran goazenean, plazan... herritarrek txalo egiten digute, eta oso hunkigarria da. Banda oso une gozotan dago, eta horri eustea da gure helburua.

Hori musikari moduan. Entzule moduan, zer duzu gustuko?

Jazz tradizionala; eta neu ere tronpeta jotzailea naizenez, Winston Marsalis dut artista gustukoena.

“Arrasateko banda une gozoa bizi izaten ari da; herrian zaletasun handia dago”

“Irakasten hasi nintzenean, lau ikasle nituen; orain, 24. Ahalik eta gehienak bandara, orkestrara... eraman nahi ditugu”

“Lan handia dut musikari moduan, baina estilo asko lantzeko aukera dut”

► Arrasate / 32 urte / Arrasate Musikaleko bandakoa

PIPERRAUTSA

Goio

Lantaldea sendotu guran, talde lana goraiatzeko dugu. Hau, gehienetan, ona da. Eta ondo doakigu eskualdean, talde pertsonen gainetik jartzen duen sistemarekin. Baina injustua ere izan daiteke. Batzuetan, pertsona bati dagokio meritu nagusia, eta ez da zuzena meritu hori ezkatzea taldearen baitan. Pertsonak erretzen dira horrela.

Barkatuko dit, beraz, GOIENKARIAko lantaldeak Goiori ematen badiot Europako sari berriaren parterik handiena. Izan ere, bera da saritutako diseinuaren aita. Gainera, sari honekin eta zarata handi barik, Goio Arana bihurtu zaigu euskaldun sarituena nazioartean, diseinu grafikoaren arloan.

Garbigailuak egiteko bidean zen Goio, Garagartzako Fagorren, baina aukeran diseinua nahiago. Eta Arrasate Press-ko lehen trena hartu zuen, laster hamabost urte. Han bertan jaso zuen SND amerikarraren saria, aldizkaria birmoldatu zuenean urte batzuk geroago. Sinestezina zen: euskarazko aldizkari txiki bat munduko diseinu onenen artean!

Beste arlo askotan ibili da Goio harrezkero, baina Goiena sortzeko orduan berriro lotu zitzaion prentsa diseinuari. Eta berea da GOIENKARIAren diseinua, iaz eta aurten Europako onenen artean hautatua. Goio esana da txikiak ez duela zertan zatarrago izan, eta ondo erakutsi du nola egin txikia eder.

Pozik egon daiteke lantaldea Goioarekin, eta debagoien-darrok GOIENKARIArekin.

MIKEL IRIZAR



Ormazabal
BARNE ARKITEKTURA
Garibai 6C • 20500 Arrasate
Tel.: 943 71 19 81
Faxa: 943 71 19 82
GIPUZKOA